



BARREN
TOKIKOM



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Oraingoan ere, portatu zarete!

Zuei esker, ehunka opari zozkatuko ditugu Elgoibarko Izarraren tonbolan. Zuei esker, abenduaren 24a berezia izango da Elgoibarren, beste urte bat gehiagoz. Mila esker Elgoibar euskaldunago egiten jarraitzeko emandako bultzadagatik. Kalegoen Plazan ikusiko dugu elkar!

AEK euskaltegia / Agurtzane Ileapaindegia / Ainhua Fisioterapia / Alcorta Forging Group / Aldaz hortz-klinika / Alfonso Guillo / Alire Estetika / Alkorta bakailauak / Altzola Berazeta baserria eta Kontsumo Taldea / Amagoia goxoki-denda / Amaia Fruta-denda / Amalur Urresti / Amaro Eraikuntzak / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Ander Mujika / Andoni Rementeria / Andres Alberdi / Aranburu bitxi-denda / Arantxa eta Marian fruta-denda / Arauri Iurindegia / Arkauz burdindegia / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Asiator / Astigarraga kirolak / Azkue argazki-denda / Azpi's bags (Idoia Azpillikueta) / Balentin Barrenetxea / Barrenetxea botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hagin-klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika banaketa / Bikustik / BitxiBitxi / Bizkor / BM supermerkatua / Bolintxo / C.D. Elgoibar / Carlos Vela / Charola horniketak / Colchoneria Lagunak / Cordon Vilarchao / Cristina estetika / Cynthia Pazmiño / Danbaka / DanobatGroup / Dantzan.eus / Debemen / Dikar S.Coop / Doña Mercedes / Duo Plaentxi / Ecenarro / Ecolandry / Egur arte-tailerra / Eizagirre okindegia / Elena ileapaindegia / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Gazte Asanblada / Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea / Elgoibarko Udaleko Gazteria Saila / Emilia Nogales / Enara Gorostiza / Ene Bada jantzi-denda / Eroski / Elgoibar Errigora / Esther Iburguren / Esteban Granero / Etxepe / Etxe-Tar / Evoka Shoes / Fadek / Ferpi / Fisiso&Mas / Fotero okindegia / G&M jantzi-denda / Gabi jatetxea / Gaiandu / Garate jantzi-denda / Garitaonandia botika / Geronimo Rulli / Gloria okindegia / Gobike bizikleta-denda / Gorostiza liburu-denda / Gure Esku Dago (Elgoibar eta Mendaro) / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hazten jantz-denda / Ibai-Ondo jatetxea / Ibarrenea okindegia / Ikus optika / Ilunpe taberna / Imanol Agirretxe / Iñigo Martinez / Ipintza margoak / Irati Agirreazaldegia / Iriondo altzari-denda / Iriondo Kirolak / Iriondo taberna / Irudi argazki-denda / Iturri taberna / Izaro Etxegibel / Jairo Berbel / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jose Antonio ile-apaindegia / Justo Arriola / Kala lora-denda / Kalamua Guraso Elkarte / Kanku karate zentroa / Karakate jatetxea

Elgoibarko Izarraren aldeko

TONBOLA

Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.200 erregalu baino gehiago,
eta, amaieran,
telebista baten zozketa!

Karkizano / Kilimon Trail / Kiroldegiko taberna / Koldo Izagirre / Kontxi jantzi-denda / Koska / Kutxaban / Laboral Kutxa / Lagun Taldea txirringulari taldea / Lanbroa taberna / Larre okindegia / Lau dekorazioa / Leigar / Leire Garate (Orio Arraun Elkarte) / Lerun jatetxea / Lorea Castro / Elgoibarko Ludoteka / Lurdes ile-apaindegia / Luvik zapata-denda / Maria Angeles fruta-denda / Magi bitxiak / Maala kafetegia / Mahats ardandegia / Maite Rementeria / Malape taberna / Mapfre / Mary harategia / Markel Bergara / Mekanosa / Merino oinetakoak / MG burdindegia / Mikel Aingeru Goenaga / Milar Bire / Mintxeta Atletismo Taldea / Moma jantzi-denda / Morkaiko Mendizale Elkarte / Morkaiko Raid Debabarrena Taldea / Munlet / Muruamendiaraz gozotegia / Mutua General de Seguros / Nagore Cid / Nieves Maidagan / Oinberri / Olalsa horniketak / Otzak taberna / Patxi harategia / Patziku Perurena / Pausoak zapata-denda / Pellegrin / Pepi eta Mila fruta-denda / Pilar Herrero / Pitxintxu / Sahatxu harategia / Salento pizzeria / Sanlo / Sara jantzi-denda / Sariki / Sinnuöse / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Sugar goxoki-denda / Suministros Evia / Tanta taberna / Taupada + 1936 taldea / Txarriduna jatetxea / Txerra Rodriguez / Txillarre eko-denda / Unai Villena / Unanue mertzeria / Urkiola taberna / Uxue Alberdi / Vanesa Mateo / Viento Sur gastroteka / Xanti Zapirain / Xarlem Creations / Xipri Arbelbide / Yudego farmazia / Zalao Arnaiz / Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarte / Ziarda harategia / Zu+NI / Zubieta Lantzen Elkarte / ...



Elgoibarko Izarraren **TONBOLA**

Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera, Kalegoen plazan taloak, txorizo egosiak, musika eta primerako giroa ziurtatuta. Olentzero eta Mari Domingi ere badatoz. Zatoz plazara, eta eman bultzada euskarari. Asko garelako gehiago izan nahi dugu, eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko bazkide-kanpaina ere hasiko dugu.



...eta opari gehiago!



San Bartolome 22 - 20870 Elgoibar
Ola Kalea 10, behea - 20160 Lasarte-Oria
San Frantzisko, 39 Tolosa
Tel.: 943 366 377

RPS 233/13

*ALDAZ HORTZ klinikako lantaldeak
gabon zoriontsuak opa dizkizue.*





ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“Osaba mutilzaharra oporretan juan ei da Ameriketara, gauzak ondo lotuta lagata. Egunero fin-fin ogixa ekartzen dion okiñari dirua laga dio mahai gaiñian”

Abel, Ekaitz Herrerak *Zuzeun* idatzitako artikulu bat ekartzia nahi dot gaur gurera: *Osabaren irakaspena*. Bere osaba mutilzaharra oporretan juan ei da Ameriketara hiru asterako, gauzak hemen ondo lotuta lagata. Egunero fin-fin ogixa ekartzen dion okiñari dirua laga dio mahai gaiñian, bera falta dan bittartian ere ogixa erosten jarraitzia nahi dabalako.

Gaur egun pentsatzeko daukagun eran honek ez dauka ez hanka eta ez buru. Zertarako erosi gozatuko ez dozun produktu bat? A zer nolako zentzugabekerixia. Ez gera Ekaitzen osabak pentsatzen dabana ikusteko gai.

Izan ere guk ogixa ikusten dogun lekuan osabak gauza garrantzitsuaguk ikusten ditту: okiñaren bizimodua eta soldata. Egun

batzutan kanpuan egongo dan arren, elkarrenganako errespetuak, leialtasunak eta gertutasunak berdin jarraitzen dabe. Zertarako aldatu orduan? Ziur nago alderantziz izango balitz ere, oporretan dixena okina izanda ere, osabak ogixa egunero jasoko leukiala. Okiña moldatuko litzake nolabait hala izan zeixan.

Ez da erreza gaur egun halako harremanak ikustia eta Amazonen garaixan are eta gitxiago. Onartu biharra daukat ni neu ere ez naizela batere fidela erosketetan, haizian arabera juten naizela askotan. Herriko dendarixeri fideltasun haundixagua zor diedala uste dot, euren gaitasun juten naizen bakoitzian sobera merzei dabela erakusten diabelako.

Zela ikusten dozu zuk, Abel? Erosketetan gero eta inpersonalaguk bihurtzen ari al gera?



ABEL ARRIAGA



“Jango ez dituen ogiak erostea zentzugabea iruditzen zaigu, baina ez gara jabetzen guk geuk ere gozatuko ez ditugun zenbat alferrikako produktu erosten ditugun”

N eure buruari galdetzen diot, Andoitz, Ekaitzen osabari, okinak, igandeetan ere eramaten ote dion ogia. Gogoan daukat, jai egunetan, aurreko eguneko ogia jaten genueneko. Konturatu gabe, denbora gutxian, gure kontsumo ohiturak guzti aldatu ditugu. Gaur egun, bat-batekotasuna eta erosotasuna bilatzen ditugu batez ere. Herrietako saltoki txikietatik, hiriguneetako zentru komertzial handietara egin dugu jausi; izen eta abizendun saltzaileetatik, denda digital eta saltzaile anonimoetara.

Aipatu duzun okinaren larruan, nire gurasoak irudikatzen ditut. Erretiroa hartu zuten arte, urte luzez aritu izan ziren behi esnea etxez-etxe banatzen. Gaur egun, ia ezinezkoa izango zitzairen baldintza berdinetan bizirautea. Bezeroentzat ustez erosoena zena, deseroso bilakatu da: baserriko esnea, tetrabrik-ekoarekin alderatuz, egosi beharra dago kontsumitzeko, iraungitze epea egun batekoa baino ez da, orokorrean garestiagoa da eta gantz gehiago

du. Merkatu libreko joko zelai desorekatuan, ekoizle txikiek, galtzeko asko dituzte.

Ekaitzen osabak jango ez dituen ogiak erostea zentzugabea iruditzen zaigu. Baina ez gara konturatzen, gehiegizko kontsumoak itsututa-edo, guk geuk ere gozatuko ez ditugun alferrikako hainbat eta hainbat produktu erosten ditugula aldiro. Zer esanik ez, Gabonetako egun hauetan! Gure jarrera ez al da, okinari lagundu nahi dion osaberena baino zentzugabeagoa?

Agian, uste baino lehenago ikusiko ditugu Amazoneko droinak Elgoibarko kaleetan, etxez-etxe, paketeak banatzen. Hala ere, aurreikuspenak aurreikuspen, ezezagunak zaizkigu etorkizuneko kontsumo joerak. Baliteke, kontsumitzaileek hala eskatuta, globalizaziotik berriro lokalizaziora eta gertuko harremanetara itzultzea. Agian, artisau, nekazari, denda txiki eta gainontzeko autonomoek, etorkizunetik gehiago dute iragartetik baino. Auskalo!

AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista



Artrosiaz eta artritiaz

45 urteen inguruan; gizonzkoetan, berriz, 60 urteen inguruan.

Artritis inflamazioarekin lotuta doa, -itis atzizkiarekin amaitzen diren gaixotasun guttiak inflamazioa dagoela esan nahi dute. Artritisaren kasuan, artikulazioak dira inflamatu direnak.

“Mugitzeak buruari egiten dio mesede, laguntzen duelako animoso egoten eta depresioa saihesten”

Oso arrazoi ezberdinengaitik sortzen dira, baina ondorioak antzekoak izaten dira: bi kasuetan mugitzeko zailtasunak izango ditugu, mina izango dugu, gortasuna igarriko dugu (gehienbat goizean, jaikitzean).

Zer egin ahal dugu gaixotasun

hauei aurre hartzeko, amaitzeko edo sendatzeko? Bi gaitz hauen kontra egiteko, garrantzitsua izango da kirol pixka bat egitea, horrela giharrak ez direlako ahulduko eta mugikortasuna ez delako gutxituko. Gorputza mugitzeak gure buruari ere egingo dio mesede, lagunduko digulako animoz ondo egoten eta depresioa saihesten. Izan ere, epe luzez minez gaudenean ez da zaila izaten depresioa garatzea.

Kolageno hidrolizatu, marrazo-kartilagoa, silizio organikoa, omega 3, magnesioa, hapagofitoa.

Sahatsa (*Sauce*), harpagofito, azeri buztana (*cola de caballo*) eta pasailora (*ulmaria*): mina eta inflamazioa kenduko digute.

Aipatutakoak baino gehiago daude, baina horiek dira nire ustez egokienak, esanguratsuenak.

Ez bakarrik barrutik, kanpotik ere lagundu ahal diogu gure gorputzari, kremak eta ukenduak aplikatuz.

Gaurko artrosia eta artritis azaltzen saiatuko gara. Denok dakigu ez direla berdinak, baina gutxi izango dira bata eta bestea bereizteko gai direnak. Biak gaixotasun erreumatikoak dira, kronikoak, endekapenezkoak (degeneratiboak) eta mina ematen dutenak, eta biek bizi-kalitatea eskasten digute.

Normalean eskuetan, lepoan, belarretan eta mokorrean ematen dira.

Gizonezkoek zein emakumezkoek izan ditzakete, baina egia da emakumezkoetan lehenago agertzen direla,



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zoioak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxebarria. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Sotero Mancisidor Osoro

***Zuk badakizu,
maite zaitugu.
Egun handira arte.***

2016ko abenduaren 18an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Ezequiel Monforte Santamaria

2016ko abenduaren 18an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Lucia Arizaga Arrillaga

2015eko abenduaren 28an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, eguaztenean, abenduak 28,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



IV. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.

***Heriotzaren ondoren
gure laguna ez ikusteak
edo berarekin komunikatu ezin izanak
ez du esan nahi betiko galdu dugunik.***

Zure lagunak





BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiegu San Lazaro egoitzako langile guztiei, gure ama hain ondo zaintzeagatik. Harreman oso ona izan dugu guztiekin, eta eskertzekoa da. Jarraitu horrela urte askoan.

Nieves Odriozolaren senideak

► JULIAN EZENARRORI ERANTZUNA

Joan zen astean idatzi zenuen gaiari buruz, puntu nagusian zurekin zeharo ados gaude: Motorrek azken urteetan Elgoibarko mendi-bide asko txikitu dituzte. Baina ez bakarrik Karakate-Irukurutzeta aldekoak; baita ere Urnabitza inguruan, Iruituritik Urkarregirako bidean, San Pedrotik Saturixorako jaitsieran, eta abar. Mendibide eta bidexka askoren egoera penagarria da. Diozu Morkaiko Mendizale Elkartetik ezer

ez dela egin horren kontra. Baina hori ez da egia. Arrazoi duzu: BARRENeN ez dugu eskutitz kezarik idatzi. Hala ere, hiru bat urte inguru daramatzagu arazoari ahal dugun neurrian aurre egin nahian; Udalarekin bilerak eduki ditugu, Aldundira ere jo dugu, eta Debegegara ere zuzendu gara, beraiek sustatutako BTT zirkuitoaren zati asko egun txikituta daudelako. Beraz, arazo horri aurre egiteko ardurua nagusia instituzioena da, eta batez ere, Aldundia-rena, berak arautzen dituelako landa eremuetako jarduerak. Mendi-sail gehienek lur-jabe pribatuak dituzte, eta jabe horiek eskubidea dute arau batzuen barruan lursail horiek ustiatzeko. Aldiz, horrek ez du esan nahi gainerako herritarrok mendiaz gozatzeko eskubiderik ez dugunik. Eta eskubidea dugun heinean,

mendia zaindu eta errespetatzeko ardurua ere badugu, noski. Hala, Morkaikotik eskura ditugun indarren neurrian saiatzen gara horren alde egiten. Laburbilduz, zabalik gaude motorren arazo honi aurre egiteko zure ekarpena eta laguntza jasotzeko. Denon laguntza da ongi-etorria.

Morkaiko M. E.

► MILA ESKER, BIHOTZEZ

Zer esan ere ez dakidala utzi nauzue. Nola eskertu hau dena! Izugarriko sorpresa hartu nuen. Argazki eta bideo dotorea oparitu dizkidazue eta hunkitu ere egin naiz haiei begira. Zenbat jende, zenbat lagun. Ezin dut banan-banan denoi eskerrik ematen hasi, eta horregatik, BARRENeN bidez eskerrik asko denoi bihotz-bihotzez.

Angel Bazterretxea

Maria Urizar
Ileapaindegia



Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com



karkizano
Gabon zoriontsuak!

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 740 349
Elgoibar



ARAMBURU BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

Erosi zure erregalua Aramburu bitxidendan eta 250€-ko bi baleen zozketan sartuko zara.



Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkerriza goroldiaperak
Hiletak orri-garriak
Dista txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak
Koloretan
Txuri-beltzean

GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagasl@euskalnet.net



ZURE ALDE

Iñaki Gil Azpilicueta
ABOKATUA

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 - behea
943 531 351

gilazpilicueta@zurealde.net
Elgoibar



DOÑA MERCEDES

San Frantzisko, 21
20870 Elgoibar
Tel.: 943 742 652
943 742 137

Jai zoriontsuak!

► MENDIAN DENONTZAT LEKUA DAGO!

35 urte daramatzagu mendiko motorean ibiltzen. Urte hauetan denetik ikusi dugu: erroberek eginiko ubideak, motoan ibiltzen garenon lepoaren altueran baserriar batzuek ipinitako burdinazko hariak, 15 motozale taldean txango berean, egurlanek eragindako Karakate gainaren eraldaketa...

Gure motorrak urtero-urtero gero eta zorrotzagoak diren baldintza ekologikoe-tara (Euro4) moldatzen dira. Errobera ekologikoak jartzera behartuta gaude eta, egunen batean, motoak elektrikoak eta zarata gabekoak izango dira.

Ez dezagun ahaztu Enduroa kirol federatu bat dela eta bere arauen menpe dagoela. Beste kirol batzuek bezala gazteentzat alternatiba osasuntsu eta diberti-garri bat emanaz.

Gure motozale taldearen %70 base-

rritarak eta lur jabeak dira, eta beraien lurretatik eta baserri atarrietatik ere pasatzen gara. Guk mendia maite dugu!

Gure artean ere sarri esan ohi dugu mendiak denok disfrutatzeko direla, eta guztiok errespetuz jokatu behar dugula. Ez ahaztu zure lurretara iristeko egin zen asfaltozko bidea guztion artean ordaindu genuela, eta asfaltozko bide hori egitearen ondorioz hainbat mendi-bide hondatu behar izan zirela. Asfaltozko bide horiek ez dira inoiz mendi-bideak izango berriz.

Iraineekin ez dugu ezer lortuko eta mehatxuekin gutxiago. Aurrerantzean ere mendian elkar ikusiko dugu. Zuen esku dago adeitasunez agurtzea edo aitzurra-ekin mehatxu eginez.

Urnobitza motoklub elkarte

► BI OHAR, GABONETARAKO

Azken ostiralean ere gure artean nahi ditugu eta abenduaren 30ean Kul-

tur Etxe atarian elkartuko gara preso dauden euskal herritarak gogoratzeko. Sare plataformaren 'Salatzen dut' kanpainarekin bat eginez, iaz bezala argazki erraldoia antolatuko dugu hainbat gaztek, eta zuen laguntza behar dugu. Salatu zuk ere! 19:00etan bildu Kultur Etxe atarira. Urtarrilaren 14an Bilbon izango dugun hitzordu handirako pres-taketa izango da!

SARE eta Elgoibarko gazteak

► OHARRA

Iritsi dira Eguberrietako oporrak BARRENERA. Hurrengo alea urtarrilaren 5ean jasoko duzue. Zorionak eta urte berri on!

BARREN

J. BERBEL ESTUDIOA

688 728 299
 jberbelestudioa@gmail.com
 San Bartolome nº18

- * **Argazki erreportaiak:** ezkontzak, haurdunaldiak, jaunartzeak, ume eta haur erreportaiak, enpresa erreportaiak, kirol ekitaldiak, ekitaldi instituzionalak ...)
- * **Bideoak:** enpresa bideoa, edozein motatako ekitaldia, ezkontzak...)
- * **Edozein tamainura inprimatzea**
- * **N.A.N argazkiak**

URTARRILEAN ZABALDUKO DUGU!



Elgoibarko Udalak 4,6 milioi euro erabiliko ditu Legealdi Planean zehaztutako 66 ekintza gauzatzeko

Elgoibarko Udalak 2015-2019rako Legealdi Plana aurkeztu du. Etorkizunerako erronka nagusiak bildu dituzte Legealdi Planean, "lehentasunezkoak". 66 ekintza edo proiektu dira, eta horiek gauzatzeko 4.635.500 euro erabiliko dituzte. Ane Beitia Elgoibarko alkateak egin zuen aurkezpena, Gobernu taldeko Josu Arraiz, Blanca Larrañaga eta Andrea Arriola zinegotziek lagunduta. Aurkezpenean nabarmendu zuten agintaldian zehar mekanismo ezberdinak jarriko dituztela planaren jarraipena egiteko, agindutakoak betetzen diren zaintzeko. "Bizirik dagoen plana da, anbizioduna, elgoibartarren beharri- zana eta itxaropen guztiak aintzat hartzen dituen. Ekarpinak egiteko aukera izango da, eta konpromisoak betetzen ditugun ala ez zaintzeko jarraipena egingo dugu", adierazi zuen alkateak.

"Partaidetzan oinarrituta eta Udaleko sail ezberdinen arteko transbertsalitatea sustatzeko helburuarekin egin dugu, eginkizun horretan sortu den Zuzendaritza Taldearen laguntzarekin eta Gobernu taldeko kideen ekarpenekin", esan zuen Beitiak. Legealdi Plana hiru arlo nagusitan banatu dute: herritarrak, antolakuntza eta lurraldea. Herritartasuna sailerako 2.734.500 euro gordeko dituzte, antolakuntza alorrerako 695.000 euro, eta lurraldea alorrerako 1.206.000 euro.



ETORKIZUNEN ELGOIBARREN ZAZPI EZAUGARRIAK

Helburu estrategiko eta ekintza zehatzekin batera, Elgoibarrek etorkizunera begira dituen zazpi erronka nagusiak zerrendatu zituen Ane Beitia alkateak:

- 1- Elgoibar euskalduna eta dinamikoa.
- 2- Bakearen, bizikidetzaren eta berradiskidetzaren kultura bultzatuko duena.
- 3- Aukera berdintasuna oinarritzat hartuta, pertsona guztien partaidetza eta ekintzaitza bermatuko dituen.
- 4- Natur ingurunea eta ingurumena zainduko dituen.
- 5- Hirigintzaren ikuspegitik, herri irisgarria, erosoa, atsegina eta iraunkorra izango dena.
- 6- Aberastasun ekonomikoa eta enplegua sortzen jarraituko duena.
- 7- Prestakuntza eskaintza anitzaren bitartez herritarren kualifikazioa bultzatuko duena.

Bikain urrezko ziurtagiria jaso du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak Bikain urrezko ziurtagiria jaso zuen astelehenean Donostiako Kursaal- en egin zuten ekitaldian, eta ldekok, berriz, zilarrezkoa. Bikain Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen ziurtagiri ofiziala da, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen dituen. Hiru maila daude, eta Elgoibarko Udalak maila gorena lortu du: urrea.

2016ko gaztarik onena aukeratuko dute Gabon Zahar Ferian

Urteko azken egunean izango da aurtengo Gabon Zahar Feria, eta besteak beste, ehun saltokitik gora jarriko dituzte aurten, produktuak erakutsi eta saltzeko. Aurtengo edizioa ere, aurreko urteetako enildo beretik garrantuko da. Eguna girotzeko, Baltzola Anaiak trikitilariak ibiliko dira kalean zehar, Elgoibarko Kale Kantariek, bestalde, euskal abesti herrikoiak eskainiko dituzte, eta Kalegoen Plazan, I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, erromeria ere izango da. Bolatokiko parkera, Lekueder eta Kalebarren plazara hurbiltzen direnek, hainbat abererikusiko dituzte. Era berean, parrillan erretako Eusko Labeldun haragi pintxoak dastatzeko aukera ere izango da, eta taloa jateko saltokiak ere ez dira faltako. Nobedade gisa, aurten Elgoibarko artisauek izango dira Maalako parkean.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, urteko gaztarik onena aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kalamua elkarteak. 12:00etan izango da, Udaltexean, Ziarda, Mañukorta eta Meabebasterre-



txea bertsolarien partaidetzarekin. Iaz bezala, txapelketa streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. 13:30ean fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa egingo dute. Gazta Txapelketako irabazleak 1.500 euroko saria, txapela eta garai-kurra eskuratuko ditu.

Parrokia izan da aurtengo jaiotza mekanikoan berrikuntza nagusia



Martitzenean jarri zuten martxan Elgojaitza taldeko kideek jaiotza mekanikoa, eta eguaztenetik ikusgai dago publikoarentzat. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrena ez zaie oharkabea pasa arduradunei, eta parrokiari berari lekua egin diote jaiotzan. San Bartolome parrokiaren erreplika sartu dute eskalara egina, eta detaile guztiak kontuan hartuta. Gavez erlojua eta kupula argizatuta egongo dira, eta egunez kanpaiek joko dute. Horrez gain, erlojuak ordua ematen du. Benantzio Otaegi parrokoak jaiotza bedekatu eta martxan jarri zuen. Era berean, aurtengo inaugurazio ekitaldian Don Pedro garai batean Elgoibarko parrokoa izandakoak ere hartu zuen parte. Biek orogarri bana jaso zuten Elgojaitzaren eskutik. Iosu Arraiz alkateordeak, bestalde, eskerrak eman zizkien Elgojaitzako kideei urtero egiten duten lanagatik.

Irene Berasaluze eta Maialen Gurrutxaga, legebiltzarkide

Abenduaren 15ean egin zuten XI. legegintzaldiaren lehen Osoko Bilkura Eusko Legebiltzarrean, eta saioan izan ziren Irene Berasaluze mendararra eta Maialen Gurrutxaga elgoibartarra, legebiltzarkide modura. Legebiltzarrerako hauteskunde ondoan zuzenean sartu zen Berasaluze legebiltzarkide, EAJren Gipuzkoako hautagaien zerrendan bosgarren aurkeztu zutelako mendararra, eta EAJk bederatzita legebiltzarkide lortu zituelako Gipuzkoatik. Maialen Gurrutxaga hamargarrena zen zerrenda hartan, baina Arantxa Tapia sailburu izendatu zuten zuzenean Gobernu berrian, Gurrutxaga sartu zen bere orde legebiltzarkide.





Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

- EGUNEKO MENUAK
- MENU BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK ERAMATEKO
- PINTXOAK

ibai-ondo erretegia

943 256 028



Meka

Lanbide Eskola

Zorionak eta Urte Berrari On!

Merry Christmas and Happy New Year!

2017



San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel: 943740359



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero **10€ko** deskontua
eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.

Baliogarria 2017ko urtarriaren 14ra arte



300 urte estreinako mezatik

1716ko abenduaren 30ean eskaini zuten estreinako meza San Bartolome parrokiaren, hortaz, aurtun 300 urte beteko dira. Hori dela eta, ospakizun urtea izan da aurtengoa San Bartolome parrokiarentzat. Urte osoko egitaraua prestatu dute, eta ekingia ugari burutu dituzte urte osoan zehar. Besteak beste, bisita gidatuak, hitzaldiak, kontzertuak edota erakusketak izan dira, eta Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek parrokiaren historiari buruzko liburua ere argitaratu dute. Pello Arrietak berak eman dizkio BARRENI San Bartolome parrokiaren nondik norakoak.

- AINHOA ANDONEGI -

Hamaikagarren mende amaiera aldera Olason zegoen San Bartolome eliza, gaur egun hilerria dagoen lekuan, hain zuzen ere. Pello Arrietak ordu asko eman ditu artxi-boetan, eta berak esandakoaren arabera, Elgoibar fundatu zeneko gutunean ageri dira Olasoko San Bartolome monastegiari buruzko lehen erreferentziak. Patronatu eliza zen. Garai hartan Erregeak edo partikularrek eraikitzen zituzten elizak, eta eurak izaten ziren jabeak. Kasu honetan Gaztelako Erregeak Olasotarrei eman zieten eliza hau, nolabait euren patronatu izateko. Eta horrek hainbat eskubide ematen zizkien Olasotarrei: Eliztarren primiziak kobratzen zituzten; diezmoak edo hamarrenak ere bai,

gorpuak hilobiratzeagatik ere bai... Garai hartan ez zegoen hilerririk, eta elizak kulturako guneak izateaz gain, gorpuak lurperatzeko guneak ere izaten ziren, eta hori ordaindu egin behar izaten zen. Eliza haren onura guztiak Olasotarrek kobratzen zituzten. 1638ra arte Olasotarrak izan ziren Olasoko San Bartolome elizaren patronoak edo jabeak. 1776an bota zuten Olasoko eliza, kanposantua egiteko, eta 1805ean hasi ziren hilerri berrian gorpuak lurperatzen.

KALEGOEN PLAZAKO PARROKIA

Olasotarrek ez zuten nahi eliza hiribildura lekualdatzea. Eurak

1604ko apirilaren

21ean Elgoibarko

Kontzejuak

parrokia Olasotik

hiri-kaskora

eramatea erabaki

zuen gehiengo

osoz. 1716ko

abenduarien 30ean

eman zuten lehen

meza.

han zuten euren palazioa, euren dorretxea eta han ondoan nahi zuten eliza. Eredu feudalaren erakusgarri zen hura: Muino baten gainean ziztuzten palazioa eta eliza, eta eurek kontrolatzen zuten guztia. Baina herritarrek urruti ikusten zuten Olasoko eliza, apaizak ere herrian bizi ziren, eta eguraldi txarra egiten zuenean Olasoraino joatea traba handia zen eurentzat, eta herrian zeuden Kofradiak ere iritzi berekoak ziren, baina Jaunak oztupoak jartzen zituen.

1516. urte inguruan, baina egoera aldatu egin zen. Urte horretan Olasotarrak Elgoibartik joan ziren. Juan Lopez Ganboak zortzi urte egin zituen Elgoibartik kanpora, eta Martin Ruiz Abendaño semea ez zen gehiago Elgoibarren biziko. Hura izan zen, beraz, San Bartolome parrokia hiribildura lekualdatzeko momentua. 1604ko apirilaren 21ean Kontzejuak parrokia hiri-kaskora eramatea erabaki zuen gehiengo osoz.

Poliki-poliki hasi ziren eliza berria eraikitzeko pausoak ematen. 1614an gaur egungo parrokia dagoen gunean zeuden bost etxe erosi zituen Udalak, parrokia berria egiteko lurra eskuratzeko. Handik hiru urtera, 1617ko urtarrilaren 23an, iritsi zen Felipe III. erregeak Parrokia hiri-kaskoan eraikitzeko emandako baimena. Obrak hastea besterik ez zen falta, baina bi hilabetera herriak su hartu zuen. Sukalde batean istripua izan zuten ama-alaba batzuek, eta garai hartako etxeak egurrezkoak zirenez, harresi barruan zegoen hirigune guztia kiskali zen. Horrek atzeratu egin zituen lanak. 1621ean behin behineko ermita bat eraikitzea erabaki zuten, eta 1627an amaitu zuten. Parrokia berriaren obrak aurrera egin zuten neurrian eraitsi behar izan zuten ermita hura, parrokia berria eraikitzeko.

Eliza berriaren obrek luze jo zuten. Elizaren lehen planoak 1646koak dira, Azkoitiko Joan Martinez Agirre arkitektoak egindakoak. Etxebarriako Joan Ansola eta Elgoibarren bizi zen Mar-

tin Garatetxea izan ziren lehendabiziko harginak, zimenduak egiteko eta gurutzadura jasotzeko konpromisoa hartu zutenak. Obra oso astiro joan zen, eta gainera, eraikitako hormetan pitzadura asko agertu ziren. Etenaldi askoren ondoren, bigarren arkitekto bat kontratatu zuten 1693an: Mendaroko (Garai hartan, Elgoibar) Lukas Longa. Rodrigo semea izan zuen laguntzaile, eta eurak egin zituzten parrokiaren diseinulana berriak. 1703an hil zen Longa, eta bere emazte Maria Antonia Egizabalek eman zien segida senarrak hartutako konpromisoei, ondorengo bost urteetan. Longatarrek eliza eta ekialdeko sakristia eraiki zituzten 1708rako. Dena dela, haien planoak kontserbatu zituzten, eta haietan oinarrituta jarraitu zituzten obrak, dorrea izan ezik. Dorrea iberotarrena da eta 1746an amaitu zuten. Altare nagusia, berriz, San Bartolomeri eskainitakoa, 1791koa da. Ig-

nacio Haan murtziarra izan zen diseinatzailea. Alboetako erretaulak, 1807koak dira, neoklasikoak. Gaur egun San Bartolome parrokian honako erretaula hauek daude: San Bartolome zaindariari eskainitakoa aldare nagusian; Jesusen Bihotza haurra eta Errosarioa gurutzaduraren ezkerreko alboan; San Anton eta gurutzea gurutzadaren eskuin alboan; Arimak luzera nabearen ezker aldean eta azkenik, Sortzea Garbia luzera nabearen eskuin aldean. Oro har, eliza barrokoa da Elgoibarkoa, eta dorrea neoklasikoa da.

LEHEN MEZA

1716ko abenduaren 30ean eman zuten lehenengo meza San Bartolome parrokia berrian. Apezpikua ez zen etorri. Gutxitan etortzen zen, eta urtean zehar noizean behin bikarioen bat bidaltzen zuen diru-kontuak eta abarrak kontrolatzera. Estreinako meza ere bikario batek eskaini zuen, Eibarko San Andres parrokiako bikarioak, hain zuzen ere.

Data esanguratsuenak

- ◆ 1604. Apirilaren 21ean Elgoibarko Kontzejuak San Bartolome eliza herrigunean eraikitzeko erabakia hartu zuten.
- ◆ 1614. Gaur egungo parrokia dagoen inguruan zeuden etxeak erosi zituzten, parrokia eraikitzeko lurra eskuratzeko.
- ◆ 1617. Elgoibarko hiribilduak 1617ko urtarrilean lortu zuen San Bartolome parrokia herrigunean eraikitzeko baimena.
- ◆ 1617. Martxoan, Ostiral Santu egunez, sute garrantzitsua izan zen herrian, eta herrigune guztia kiskali zen. Etxe bateko sukaldeak su hartu zuen eta garai hartan etxe guztiak egurrezkoak zirenez, dena erre zen. Horrek parrokiaren obren hasiera atzeratu zuen.
- ◆ 1621. Gaur egun parrokia dagoen lekuan San Bartolome ermita eraiki zuten, eta hura erabiltzen zuten 1628ra arte.
- ◆ 1666. Gaur egungo parrokiaren lehen planoak egin zituzten.
- ◆ 1693. Lucas Longa Mendaroko arkitektoak eta Rodrigo semeak hartu zuten parrokiako obraren ardura.
- ◆ 1703. Lucas Longa hil egin zen eta emazteak hartu zuen senarraren konpromisoei segida emateko ardura.
- ◆ 1716. Abenduarien 30ean eman zuten lehenengo meza. Eibarko San Andres parrokiako bikarioak eskaini zuen.
- ◆ 1746. Ignacio eta Francisco Ibero aita-semeek Parrokiako Dorrea amaitu zuten.

Elgoibarko arte erlijiosoari buruzko erakusketa

Urteurreneko ekintzen barruan, Elgoibarko arte erlijiosoari buruzko erakusketa inauguratu zuten astelehenean, eta parrokian bertan egongo da ikusgai urtarrilaren 17ra arte. Elgoibarren dauden ermitetatik (San Roke, San Lorentzo, San Antolin, San Migel eta San Pedro), Santa Klara komentutik, Donostia Elizbarrutiko museotik eta artxibotik, Zarauzko Frantziskotarren komentutik eta Donostiako San Telmo museotik ekarritako elementuekin osatu dute erakusketa. Horrez gain, San Bartolome parrokian bertan dauden elementuak ere ezagutaraziko dituzte erakusketan. Batzuk bertan egin zituzten, beste batzuk Olasoko San Bartolome elizatik ekarri zituzten eta beste zenbait San Frantzisko elizatik. Guztira 87 arte elementu daude ikusgai. Horietatik 50 dira ekarritakoak: 20 eskultura, 3 margo eta 27 dokumentu edo agiri, kantu-liburu eta elizako liburu. Gainerako 37 elementuak parrokian zeudenak dira, besteak beste, erretaula, margo lanak, burdin sarea edo hainbat irudi. Eskultura eta artelan horietako asko Maite Ferrero elgoibartarrak zaharberritu ditu. Era berean, Idorbe bailarako Urkiola baserriko Andres Egidazuk egindako San Bartolome elizaren maketa bat ere jarri dute ikusgai.

Erakusketaren helburua Elgoibarko ondare erlijiosoa ezagutaraztea da: "Ezagutzen ez dena ezin da baloratu, eta baloratzen ez dena ezin da maite. Ondarea zainduz gure oroimen historikoa lantzen dugu", adierazi zuen Arrietak erakusketaren inaugurazioan. Aurten eskaini dituzten bisita gidatuen eta joan den astean aurkeztu zuten liburuaren helburua ere gure ondare erlijiosoa eza-

gutaraztea dela nabarmendu zuen. Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek joan den eguenean aurkeztu zuten mendeurrenaren harira idatzi duten liburua: Kalegoengo San Bartolome Parrokia (1716-2016) / Errebaleko San Frantzisko Monastegia (1516-1926). Interesatuek Pitxintxu eta Gorostiza dendetan eskuratu dezakete.

Erakusketaren osagarri modura bideo bat sortu dute, 750 irudiz osatua, eta parrokiako pantailan erakutsiko dute. Pello Arrietak azaldu duenez, Elgoibarko ondare erlijioso guztia bildu dute argazkiotan: Olasoko eta Kalegoengo San Bartolome, San Frantzisko komentua, ermitak, Eliz Museo, San Telmo eta Santa Klarako argazkiak, besteak beste. Pelloekin batera, Jesus Zubiaurre, Sabin Etxaniz, Jesus Mari Juaristi, Elur Arrieta eta Josu Ansola aritu dira lan horretan.

Era berean, Edorta Kortadi Donostiako Eliz Museoko zuzendari, Deustuko Unibertsitateko katedradun eta Santa Maria parrokiako bikarioaren laguntza ere izan dute erakusketa osatzeko, eta inaugurazio ekitaldira ere etorri zen. "Ondare bikaina duzue elgoibartarrok. Gure historiaren berri ematen diguten artelanak dira, kristautasuna Gipuzkoan nola barneratu zen erakusten digutenak. Aranak eginiko margolanak oso onak dira, eta Lucas Jordanoren margolanek ere balio handia dute, goi mailako margolaria izan baitzen. Daukazuen ondarerik handiena, baina, daukazuen parrokoa da: Benantzio", esan zuen Kortadik.



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

**Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!**



Kalebarren plaza, 2 – 20870 ELGOIBAR
943 742 731
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

GOKI ERREFORMAK S.L.

O BRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
goki@gokierreformak.com



Irizar Ibilbidea, 1 behe 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es



I.T.E.
Eraikinen Ikuskaritza teknikoak



Energia-eraginkortasunaren
ziurtagiria

Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatua - Bainugelak
Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinazioa

www.gokierreformak.net

**Gabon
zoriontsuak!**

Elgoibarko artisauak elkartu eta ArTalde sortu dute



ArTaldereen aurkezpeneko argazkia.

ArTalde jaio da, Elgoibarko artisauen taldea. Hemezortzi artisau dira taldean gaur gaurkoz, eta hilaren 31n, Gabon Zahar ferian, aurkeztuko dira talde moduan, Maalan jarriko duten azokan. Nagore Cid, Enara Gorostiza eta Amaia Erkizia dira ArTaldere batu diren artisauetako hiru, eta haien ahotik jaso ditugu azalpenak.

Ezgunak dira denak Elgoibarren, behin baino gehiagotan ikusi ditugulako kalean eskuz eta gustu handiz egindako euren lanak erakusten eta saltzen. Lekuederren bi urtez egin den artisau azokan parte hartu dute taldekideetako askok eta orain aste batzuk Maalan egin zen azokan ere ikusi genituen, nor bere aldetik. Orain, baina, eskutik datoz, taldearen babesean. "Elgoibarko Udaletik etorri zitzaigun batzeko proposamena; bultzada. Ezagutzen genuen elkar, egin diren azoketan izan dugulako gure artean harremantzeko aukera eta gure kezkez eta bestelakoez hitz egitekoa ere bai, eta proposamena begi onez ikusi

genuen. Batu ginen eta elkarrekin sortzeko pausoak nola eman ere adostu genuen", azaldu du Erkizia. Batzea izan da lehen pausoa, eta bilerak ere egin dituzte, bideak nora eramatea nahiko luketen aztertzeko. Garbi dute nork bereari eutsiko diola eta elkarrekin eta elkarrengandik asko ikas dezaketela, baina badakite, zernahi egiten dutela ere, taldean errazago egingo dutela, artisauena ez delako preseski gremiorik baloratuena. Hain justu ere, horixe dute helburu nagusizat: artisautza balioan jartzea. Baina erronkak gehiago dira. "Bizipoza" zabaldu nahi dute, "herriari bizia eman", eta ArTalde gorpuztu ahala, tailerren bat sortzeko ideia ere buruan darabilte. Ahoz ahoko publizitatea baino hoberik ez dagoela jakin arren, Facebook orrialdea ere sortu dute erakuslehotzat, eta taldea bera zabalik dute batu nahiko luketenentzako. Baldintza bakarra jarri dute taldera batzeko: artisaua elgoibartarra izatea edo gutxienez Elgoibarrekin lotura duena.

Azokan egongo diren artisauak

Hemezortzi artisau dira taldean, baina Gabon Zahar ferian hamalauk parte hartuko dute azokan. Honako hauek dira:

Ana Mosakula (xaboiak eta kremak) / Arriere de La Maison (eskulanak) / BitxiBitxi (bitxiak) / Cynthia Pazmiño (moda osagarriak) / Darama (zilarrean egindako lanak) / Enara Gorostiza (Ehunak) / Irati Agirreazaldegi (bitxiak) / Jose Membrillera (eskulanak) / Juni Vergel (Ehunak eta bitxiak) / Magi (bitxiak) / Moninbo (bitxiak) / Nieves Maidagan (eskulana eta birziklatzeko) / Xabier Isasti (egurrean egindako lanak) / Zu Gehi Ni (ehunak)

Mimo handiz egindako lanekin irtingo dira Maalara denak gaur zortzi, abenduaren 31n. Beraz, oraindik opariak erosi gabe dituenak aukera polita izango du herrian bertan eskuz egindako opariak erosteko, eta bide batez, herriko artisauen lana balorean jartzeko.



2016

urtekaria



Koro Gabiola eta Iñaki Iraola, Lesbosen. Koro Gabiola eta Iñaki Iraola Lesbosen izan ziren Gabonetako oporraldian, errefuxiatuak artatzen. Haren ondotik, gerretatik ihesi zebiltzan errefuxiatuei arropa bidaltzeko kanpaina jarri zuen martxan Hotz-Elgoibar taldeak, eta 13.000 kilo material batu zuten.



Joseba Zinkunegi kartzelatik libre: Joseba Zinkunegi eta 04/08 sumarioan auzipetutako beste 34 militante independentistak kartzelara joatea saihestu zuten, fiskaltza eta herri akusazioa ados jarri ondoren. Urte eta erdi eta bi urteko kartzela zigorrak ezarri zizkieten, baina epaiketaren aurretik kartzelan egon zirenez, kartzela saihestu ahal izan zuten.



Soarteren idia kalerik kale ibili zen. Soarteren idi batek sekulako sustoa eman zien elgoibartarrei, Artazo eta Soarteren arteko dema baino lehenago. Sigmako probalekutik ihes egin zuten pisatzera eraman zutenean eta kalerik kale ibili zen.

Bizikidetzaren alde egiteko batu ziren. Pentsaera politiko ezberdineko jendea herri berean elkarrekin bizi daitekeela erakusteko foro bat sortu zuten Elgoibarren. Askotariko ideologia politikoetako jendeak osatu zuten taldea, Euskal Herriko gai politikoez hitz egiteko, errespetutik eta errespetuz.





PNEUMAX, S.A.
AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGAIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44- 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es

MIEMBRO DE
aiftop
Oleohidráulica y
neumática






Gabon zoriotsuak herritar guztioi!



'www.elgoibarreraz.eus' web ataria aurkeztu zuten. Ordura arte herriko euskararen inguruan egin eta web-gune ezberdinetan jasotako guztia atari bakar batean biltzen duen ataria da. Elgoibarko Udalaren Gotzon Garate beka jaso eta Gotzon Barandiaran larrabetzuarrak egin du.



Juan Mugertza Nazioarteko Krosa, munduko onenen artean. Bigarren urtez munduko zortzi kros onenen artean sartu zuen Nazioarteko Atletismo Federazioak Juan Mugertza Nazioarteko Krosa. Irene Chepet Cheptai kenyarrak irabazi zuen emakumezkoetan, eta Aweke Ayalew etiopiar jatorriko bahraindarrak, gizonezkoetan.

Palestinarako materiala bildu zuen Pablo Garridok. Elgoibarren eta Eibarren 100 kilo arropa eta 30 kilo eskola material jaso ondoren, Palestinarantz jo zuen Garridok Gabonetako oporraldian, baina Israelgo Poliziak ez zion laga Palestinan sartzen. Hala ere, lortu zuen materiala bidaltzea.



Arnaldo Otegi 2021. urtera arte inhabilitatu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak. Defentsak helegitea aurkeztu zuen Gorenean, eta hainbat musikarik eta artistak bat egin zuten Otegiaren askatasuna eskatzeko. *Free Otegi, free them all* bideoklipa kaleratu zuten.

FONTANERÍA

Ibámar

ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net

Gabon zoriontsuak!

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOLA
- AIRE EGONTEA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGALAK
- GRENIDEN KORDAZIOA
- EKERFORMAK



CORDON VILARCHAO

943 740 570

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea,
18 - 25 eta 26 modulua
cordonvilarchao@telefonica.net

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zaluzak ezartzea
Lakadura: eguz, aluminio, PVC.
Pintura kolore





MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Inopiozko denbetezko deialerak.
Deitu ordua hartzeko.*



Elgoibarren sailkatu gabe gelditzen zen zaborra Cantabriako zabortegi batera hasi ziren bidaltzen. Elgoibarkoaz gain, San Marko eta Sasieta mankomunitateetako zaborrak ere hasi ziren bidaltzen.



Maitasunez Hezi taldea sortu zuten. Ainize Saezek eta Naiara Eizagirrek sortu zuten, amatasunak eragiten dituen zalantzak, bizipenak, informazioa... beste ama batzuekin partekatzeko. Ama izan berriren sumatu zituzten gabezi eta beharrez gogoeta egiteko eta elkarri laguntzeko sortu zuten taldea.



Elgoibarko gizarteratzeari eta gizarte bazterkeriari buruzko diagnosis eta lan plana aurkeztu zituen Elgoibarko Gizarteratze Mahaia (Udaleko Gizarte Ongizate Saila eta Berdintasun eta Enplegu Saila, Lanbide, Zabaltzen Elkartea, Caritas, Gurutze Gorria, Nagusilan, Kaleratzeak Stop Debarrena, Gizarte-bazterkeriaren aurkako Plataforma eta Kalamua Guraso Elkartea batu ziren lehenengoan). Diagnosi haren arabera, etorkinak, emakumeak eta adinekoak dira gizarte bazterkeria gehien jasateko arriskua dutenak.






San Antolin 3 • 20870 Elgoibar • Tel.943 740 600 • Faxa 943 743 472
etxetar@etxe-tar.com • www.etxe-tar.com

Tratu onen aldeko taldea sortu zuten Mendaron. Emakumezkoak zein gizonezkoak batzen dira taldean, berdintasunaz edota matxismoari aurre egiteaz jarduteko.



David Slater korrikalariari buruzko dokumentala aurkeztu zuten Allkeyko zinemaldian (Ingalaterra). Azkarateko igoeran errekorra ezarri zuen Slaterrek (21:40) 1981. Urtean. Dokumentalean elgoibartarrek parte hartu zuten.



Incognita Patagonia espedizioari ekin zion Eñaut Izagirrek. Ikerketa zientifikoari lotutako proiektua zen, abenturatik asko zuena. Patagonia inguruko mapak kalitate onean osatu ostean glaziarren egoerari buruzko dibulgazio zientifikoari ekin zioten. Abenduan, Fedme Sarietan saritu zituzten.



Eguberri on!
Gastainak erre artean

Halasa Egaña (Babi 10)

Esakularry lodiak jantaita
buzanda lepo inguruan
kale hotzetatik ibilean
hamaika kontu buruan
usain gozo baten melodiak
galdinara! neu onlean
ni neu ere kosturatu orduko
gastainak nitun eskuan
Hator, hator mutiko atxera
gastain zimelak jatera
urte osoko araso horiek
urte itxasur nire batera
familian elkartuko gara
lagun artean bestela
ta beste behin ospatuko diegu

Doinua: Badina hiru aste
Malen Egaña (Babi 20)

2016
Elgoibar-Arreiturre BHI



Kulturartekotasuna, integrazioa eta gizarteratzea bultzatzeko emakume migratzaileen elkarteak sortu zuten. Lo-reak Taldeak Zabaltzen-Sarturen eta Elgoibarko Udalaren laguntza jaso zuten.



Martin Hernandez, podiumean. Bigarren egin zuten gazte mailako pista estaliko 29. Espainiako atletismo txapelketan. 600 metroko lasterketan hartu zuten parte, kadeteetan.



Arnaldo Otegi, aske. Iragarrita zegoen bezala, martxoaren 1eko goizaldean irten zen Arnaldo Otegi Logroñoko kartzelatik, sei urte eta erdi preso egin ondoren. Elgoibarrera gerturatutako jendetzak eta arreta mediatikoak haren itzala zenbaterainokoa den erakutsi zuten. Hartutako bidea "irrimo" defendatu zuen Otegi, aske utzi berritan eta "azken muturreraino" eramateko borondatea agertu zuen.



Deba ibaia, gainezka. Gogotik egin zuten euria otsailaren 26 eta 27an eta Deba ibaiak gainezka egin zuen. Mendaroko Garagartza auzoan eta Altzolan eragin zituen kalte handienak urak. Elgoibarko bidegorri hasieran ere zulo handia egin zuten urak.



Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net





Istripuen kontaketa. A8 autobidean, Donostiako norabidean, Mendaro parean izaten diren istripu guztiak ikusita, eta autobideko joan-etorrien eta kamioien zaratak gogaituta, istripuak zenbatzen hasi zen Joseba Olazabal.

Unai Villenak eta Jokin Urainek liburu bana argitaratu zuten. *Hauts haietatik* liburua kaleratu zuen Villenak, buruko gaixotasunen estigma sozialaren eta psikatrikoen salaketa den liburua. Jokin Urainek, berriz, 426 preso, iheslari eta erbestereuren lanak jasotzen zituen *Ametsen liburua* lanean.



Ainara Ladron gazte elgoibartarra atxilotu zuen Erztaintzak. Zarauzko Arrano elkartearen atxilotu zuten. Ainara Ladron eta beste lau gazte martxoaren 3an epaitu behar zituzten Donostian, orain dela bederatziti urte A8 autobidean trafikoa eteteagatik, Segiren ilegalizazioa salatuz. Ladron eta beste bi, baina, ez ziren epaiketara agertu eta atxilotzeko agindu zuen epaileak.



Gudari baten gorpuzkinak erreperatu zituzten. Gerran fusilatutako gudari baten gorpuzkinak atera zituzten Aranzadik Elgoibar eta Etxebarria arteko mugan. Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak jasotako lekukotzen arabera, beste bi pertsona egon litezke lurperatuta inguru horretan.

Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida
Osasun gida

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalra, 13
943 740 191 / 607 963 628
www.fisio-mas.com
RPS 137/18

Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15

ERROSARIO Errocino, 7
HAGIN KLINIKA Elgoibar
943 743 679

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

leku eder
hartz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

aldaz
hartz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192



Migrazio debekuen kontrako adierazpen instituzionala. Mugak berehala zabaltzeko eskatu zion Elgoibarko Udalak Europako Batasunari, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartutako adierazpen instituzionalean. Elkertasunean eta giza esku-bideekiko errespetuan oinarritutako politikak indartzeko eskatu zion.



AVS enpresakoak Martera begira jarri ziren. Elgoibarko AVS enpresako kideak Bordelen izan ziren grabitaterik gabeko simulazio batean parte hartzen, Marteko ilargi batera bidali nahi duten zunda baten dispositibo bat probatzeko.

Lapurretan egin zuten Mendaroko Saint-Ge-rons txokolate dendan. Lapurrek ez zuten bonboi bakar bat ere laga denda. Era berean, dendarekin lotuta dagoen bizilekuan ere sartu ziren lapurrak.



Nerea Arriola, onenen artean. Biolin-jole mendaroarrak Euskadiko musikari gazteen lehiaketa irabazi zuen, harizko musika tresnen sailean, 12 eta 15 urteko mailan. 2015ean bigarren egin zuen ariketa honetan.


UNCETA
 GRUPO UNCETA TE DESEA FELIZ NAVIDAD
 Y UN 2017 LLENO DE ÉXITOS
 GRUPO UNCETA GABON ZORIONTSUAK ETA
 2017 ARRAKASTAS BETEA OPA DIZUEGU
 GRUPO UNCETA WISHES YOU A MERRY
 CHRISTMAS AND FULL OF SUCCESS 2017
 GRUPO UNCETA DESEJA-LHE UM FELIZ
 NATAL E UM 2017 CHEIO DE SUCESSOS

www.sariki.es
www.unceta.es
www.labmetro.es



Zelaietaburuko muinoan, gudarrien gorpuak lur azalera. Beste bi gudarren gorpuak atera zituen Aranzadik Zelaietaburuko muinoan. Hainbat elgoibartarren testigantzen bidez ailegatu ziren ikerlariak eta zientzialariak Zelaietaburura.



Mondragon Korporazioaren Batzorde Iraunkorren Iñigo Ucin (Azkoitia, 1960) Danobat taldeko presidentea izendatu zuen Kontseilu Orokorreko presidente.

Patxi Galarraga eta Miren Vives arkitektuek Hiribiltzen proiektua aurkeztu zuten. Hiribiltzen proiektuan ibilaldi bat egiteko proposatu zieten Donostiara gerturatzeko ziren guztiei. 84 egunean munduari buelta emateko aukera eskaini zuten.



 elgoibarko herri eskola





Gemma Agirregomezkortari gorazarre. Gemma Agirregomez korta omendu zuten ETB1eko *Asko maite zaitut* programan. Azken urteetan Miski elkartearen egindako lan guztiaren aitortza egin nahi izan zion bere lagun Blanca Salegik, familiakoen eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin. Zuhaitz Gurruxagak aurkezten zuen saioa, eta aitortu zuten eszenatoki batean bizi izan zuten momenturik "intentsoena" bizi izan zuela herrian.



Mendaroko Bizi Poza txarangak 25 urte bete zituen. Lagun talde batek hasi zuen ibilbidea, eta handik etorri zen txaranga sortzeko ideia. Lehen urtean hamabi lagunek osatu zuten taldea, eta jaietan soilik jotzen zuten. Gaur egun ekitaldi gehiagotan hartzen du parte txarangak.



Antton Alberdik Caf-Elhuyar saria jaso zuen. Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio artikulua bategatik saritu zuten. *Non hegoa, han zangoa: saguzar belarrihandi alpetarren arrastoari jarraika lana saritu zioten.*

ASESORIA GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoria@asesoriagoar.com

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 742 674

Errosario 7 - Elgoibar
Tel.: 943 743 679
errosario7@gmail.com

ERROSARIO
HAGIN KLINIKA

Garazi Sampedro Arando
tel. 965 0086

Gabon zorientsuak eta urte berri on!



Maalako biribilgunea ixteko obrak amaitu zituzten. Maalan zegoen biribilgunea irekia itxi zuen Udalak. 129.050 euroko kostua izan zuen obrak, eta Foru Aldundiak finantzatu zuen.



Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Izarra, eskutik. Elgoibarko Udalak 183.000 euroko diru-laguntza eman zion Elgoibarko Izarrari. 123.000 euro Eus-kara Batzordetik eta 20.000 euro Gazteria Batzordetik. Ane Beitia alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek sinatu zuten hitzarmen dokumentua.

Arnaldo Otegi, EHBilduren lehendakari-gai, Legebiltzarreko Hautesku-deutarako. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko herri eta auzoetan egindako batzarretan aukeratu zuten Arnaldo Otegi lehendakari-gai. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak debekatu egin zion, baina, aurkeztea.



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

Gabon zoriontsuak!

BOSCH Service
Car Service

ARAGON
Berebizitza aldiak

www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Erabaketa: **943 820 697**
Lortzea: **943 202 214**
943 127 271

<p>15.500 €</p>  <p>VW GOLF 1.6 TDI CR IVI BUSINESS Motora: 1.6 cm3 TDI Diesel Kil: 90.000 Egerra: erabilia</p>	<p>13.800 €</p>  <p>HONDA CR-V 2.2 iDTEC COMFORT Motora: 2.2cm3 iDTEC Diesel Kil: 223.000 Egerra: erabilia</p>	<p>12.500 €</p>  <p>BERLINGO MULTISPACE 1.6 iDTEC TONIC 75 Motora: 1.6 cm3 iDTEC Diesel Kilometroak: 60.000 Egerra: erabilia</p>
<p>6.500 €</p>  <p>RENAULT CLIO BUSINESS 1.5 Motora: 1.5 cm3 DCI Diesel Kil: 106.000 Egerra: erabilia</p>	<p>15.300 €</p>  <p>OPEL INSIGNIA ST 2.0 CDTI SPORT 160 Motora: 2.0cm3 CDTI Diesel Kilometroak: 120.000 Egerra: erabilia</p>	<p>25.500 €</p>  <p>HONDA CRV ELEGANCE 2.2 i-CTDI Motora: 2.2 cm3 i-CTDI Diesel Kil: 100.000 Egerra: erabilia</p>



Sebas Etxaniz presoarekiko elkartasunez. Sebas Etxanizi babesa eskaini zioten hainbat eta hainbat herritarrek. Legediaren hainbat atalek diote 70 urtetik gorako presoak kalean egon beharko luketela, eta horren arabera, Etxanizek libre beharko luke. Pentsamolde askotako lagunak bildu ziren Etxanizen askatasuna eskatzeko argazkian.



Jairo Berbelek 'Siempre' liburua argitaratu zuen Quiton (Ekuador). Yulexi Carolina Chevez minbiziak jota hil zen, baina hil aurretik Jairo Berbel ezagutzeko aukera izan zuen. Haren bizipenak eta ametsak jaso zituen Berbelek bere estreinako eleberrian.



Eli Ibarra, bosgarrenez txapeladun. Eli Ibarrak bosgarren aldiz irabazi zuen Liga Txapelketa Athletic taldearekin, azken liga irabazi zutenetik bederatzirtertera. Ibarra da Athleticekin bost ligak irabazi dituen jokalaririk bakarra.

6.300 euro bildu zituzten Iban 2-dean erronka solidarioari esker, Greziako Chios uhartera bidaltzeko.

Elgoibarriz mendiz lau itzuli egiteko erronka jarri zion Iban Fernandezek bere buruari, eta erronkari kutsu solidarioa eman zioten. Kilometroak saldu eta bildutako dirua Greziako Chios uhartean zeuden errefuxiatuei laguntzeko erabili zuten. Ibanek ez zuen erronka amaitzea lortu, hiru itzuli osatuta utzi zuen proba.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Pintxo txapelketa arrakastatsua. Viento Sur eta San Roke tabernak saritu zituzten pintxo lehiaketan. Viento Sur tabernak epai-mahaiaren saria jaso zuen, eta San Rokek, berriz, herritarren saria.





Iñigo Larizek Nahaste Borrasteko errekorra ondu zuen hamasei segundoan, eta Martin Dominguez berdindu zuen garaipenetan, sei aldiz irabazita. 17:34 denboran ezarri zuen errekorra Larizek.



Ane Zabaletak Kirol Egokituaren Espainiako Atletismo txapelketa irabazi zuen. 100 metroko proban hartu zuen parte elgoibartarrak eta urrezko domina eskuratu zuen.

Espainiako Kongresurako Hauteskundeak. EAJ izan zen lehen indarra Elgoibarren, eta Mendaron, Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak hartu zuen aurrea. Elgoibarren, jeltzaleek euren nagusitasuna berretsi zuten. 1.834 botorekin; 1.337 botorekin Elkarrekin Ahal Dugu koalizioa izan zen bigarren indarra, eta EHBildu hirugarrena izan zen, 1.097 botorekin. Mendaron lehia bizia izan zen jeltzaleen eta Ahal Dugu koalizioaren artean. Azkenean bost botoren aldeagatik gertatu zen sorpasoa. 2015eko abenduko hauteskundeekin alderatuta %5ean jaitsi zen partaidetza Elgoibarren zein Mendaron.



Autoeskola
LARRAÑAGA

Etorri eta teorikoa atera ezazu 17 urte bete baino lehen!

URTE BERRI ON!

Santa Ana Kalea, 11 behea
20670 ELGOIBAR
943 741 011
elgoibar@autoescuelalarranaga.com

Mahasterreka Kalea, 10 behea
20570 BERGARA
943 761 663

ONDO PASA GABONAK!!!

Nerea Rodriguez Aramburu **URTE BERRI ON!**

elgoibar ikastola
zuentzat eta zuekin eguneroko jardunetan etorkizuna erailen

Partido egiak eruzuna, Icop. - Emunabidea, 7 - Posta 53 - 20870 Elgoibar - Tel: 943 744 441 - elgoibar@elgoibarikastola.es



Atentatua Istanbulgo aireportuan. Alizia Txurruka elgoibartarra onik atera zen Istanbulko atentatutik. Taiwanera zihoan Alizia lan kontuengatik, eta Istanbulgo Ataturk aireportuan zegoen eskala egiten. VIP aretoan harrapatu zuen atentatuak. Susto handia izan zen, baina onik atera ziren. Taiwanera joan beharrean, etxerako bidea hartzea erabaki zuen.



BARRENen 1000. alea. Uztailaren 8an argitaratu zen 1.000 alea. 1992ko abenduaren 24an kaleratu zuen Elgoibarko Izzarrak estreina-koz BARREN astekaria eta ordutik hutsik egin gabe barixakuero sartu da elgoibartarren etxeetan. Mila ale horietan protagonista izan direnak bildu zituzten ale berezi batean.



Istripu larria gertatu zen Sigma parean. Berriz ere, agerian geratu zen auzoko irteera zein arrisksua den. Sigma auzotik 634 errepidera irten behar zuen Citroen Picasso auto batek errepidean zihoan BMWa jo zuen. Kolpe gogorra izan zen, eta suhiltzaileen beharra izan zuten zauritua autoetatik ateratzeko.

Antton Iranzo, Elgoibar CD Elgoibarko presidente. Urteko batzar nagusian aurkeztu zuen klubak zuzendaritza talde berria, eta Antton Iranzok hartu zuen Jesus Unzillaren lekua lehendakari karguan.




URKIDI
AHOLKULARITZA

Oihana Urkidi
oihana@urkidi.net

Telefonoa: 943 74 18 91
Kalamua, 12
Elgoibar

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

PAGOERROTA
iturgintza




Duscholux etxeko dutxa-itxituretan
% 30eko deskontua

Herriko Enparantza, 10 beheka (MENDAKO)
Tel: 943 758 044 - Faxa: 943 758 037 - Sakeleka: 628 529 682
www.pagoerrotaiturgintza.com - pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com



Nora Kortaberria Sanloko jokalaria final zortzireneta-raino iritsi zen Espainiak o Seleksioarekin.

Errusian jokatu zuten munduko txapelketa. Norak partida guztiak jokatu zituen, zazpi guztira, eta hamasei gol sartu zituen.

Eraso sexistarik gabeko jaien alde. Santanen aurretxoan, Tratu Onen Aldeko Mendaroko Taldeak idatzi bat kale-ratu zuen, eraso sexistarik gabeko jai parekideen alde, eta berdintasun giro horretan ospatu zituzten festak. Bertsolariak, kontzertuak eta beste hainbat ekintza izan ziren jaietan.



Maite Maiora, munduko txapeldun. Munduko mendi maratoi txapelketa irabazi zuen. Skymarathon modalitateko proba jokatu zuten Lleidako Pirinioetan eta Maite Maiora mendarorak irabazi zuen, 4:42:21eko denborarekin. Horrez gain, hirugarren postua lortu zuen igoera bertikalen Munduko Txapelketan.

zubacor

*Gabon Zoriontsuak,
Zubacor osatzen dugun
guztion partetik.*

www.zubacor.com - zubacor@zubacor.com

Tel.: 943 740 844 - Faxe: 943 742 666



San Bartolome jaia ospatu ziren Elgoibarren. Parrokiaren 300. urteurrena aitzaki hartuta, parrokiako kideek bota zuten jaiei hasiera emateko txupinazoa. Begoña Mugertza San Lazaro egoitzako langileak eta Benantzio Otaegi parrokoa izan ziren udaletxeko balkoian.



Emakumeen estreineko soka-dantza.

Emakumezkoek egin zuten estreinakoz Haritz Dantza Taldearen soka-dantza.



Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan

www.muruamendiaraz.com

Gabon zoriontsuak!



1.800 €

10 EROSKETA TXEKE OPARITZEN DITUGU
1. ETA 2. SARIA 500 EURO
BESTEAK 100 EURO

ZOZKETA 2017KO URTARRILAREN 9AN



TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARIAK

ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON!!



EAJk irabazi zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, nagusitasunez. EAJ izan zen alderdirik bozkatuena Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere, eta EH Bildu izan zen bigarren indarra. Era berean, Elkarrekin Podemos izan zen hirugarren alderdi bozkatuena. Estreinakoz aurkeztu zen Elkarrekin Podemos Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara eta indar berri horrek dantza eragin zuen emaitzetan. PSE-EEren emaitzetan igarri zen nabarmenen.



Gararock musika jaialdia Mendaron. Musikak hartu zuen Mendaroko Garagartza auzoa irailean. Eguraldia lagun, Mendaroko jendea ez ezik, inguruko herrietatik ere joan zen jendea Gararock jaialdira. Bikustik Elgoibarko musika taldeak hasi zuen jaialdia eta jendea dantzan jarri zuen. Umeek ere izan zuten rock musikan barneratzeko aukera, eurretzanko propio prestatutako tailerrek. Afalostean, Munlet taldeak *Chupacabras* diskoa aurkeztu zuen. Goizaldeko ordu txikiak arte jarraitu zuen musikak Gaztetxean, Bilboko Vulk taldearekin.

Paralinpiar Jokoetan berriemaile. Nerea Gurrutxaga Zuatzubizkar elgoibartarrak Gazteaukerak eta Basque Teamek antolatu zuten lehiaketa irabazi zuen, Elgoibar eta Mendaroko kirolariekin egindako bideo batekin. Saria Rio de Janeiroko Paralinpiar Jokoetara joatea izan zen, EAEko kirolarien jarraipena blog bitartez egitera. Elkarrizketa, albiste, argazki eta bideoen bidez euskal kirolarien jarraipena egiteaz gain, gertutik bizitakoa ere kontatu zuten blogean: giroa, boluntarioak, segurtasuna, anekdotak, ikusitako lekuak... Paralinpiar Jokoetatik bueltan han bizi eta sentitutakoak azaldu zizkion BARREN aldizkariari eskaintako elkarrizketan.



ESARRI AUTOAK
MARKA GUZTIAK

Olaso, 17
 20870 ELGOIBAR
 Tel.: 943 741 480
 Fax: 943 031 576
 Jon: 679 241 623
 Anton: 680 356 573
 e.mail: esarniauto@gmail.com


ZERBITZUA


HYUNDAI


MAZDA

BM Termoplastiko eta Korposituen
 Mekanizazio Lanak
 Metal Ez-Ferrikoak
 bronymec




 @BronymecSA



36ko gerraren errekreazioa. Elgoibarko kaleek 1936ra egin zuten salto joan den irailaren 16an eta 17an, gerran tropak herrira sartu zirenekoa errekreatu nahian. Eta, talde eragilearen esanetan, helburu hori bete zuten. "Gure erronka zen sinesgarritasuna ematea, jendea inplikatzera eta herritarrei orain dela 80 urte pasatako hura biziaraztea. Era berean hori zen zailena eta bete dugunez, oso oso gustura gaude. Gainera, jendeak ikusi zuen ez zela antzerkia, errekreazioa beste gauza bat dela eta beraiek bizi izan zutela benetan izan balitz bezala". Errekreazioko irudiekin Memoriaren Ganbaratik dokumentala osatu dute Taupadak eta Elgoibar 1936 taldeek.

Pedaló filma saritu zuten Donostiako Zinemaldian.

Pedaló filmeko protagonistetako bat Joseba Etxeberria elgoibartarra da. Juan Palacios zinegile eibartarraren *Pedaló* filmak irabazi zuen Euskal Zinemaren Irizar Saria Donostiako Zinemaldian. Euskal Herriko kostaldea, Miarrizetik Bilbora, pedaló batean zeharkatzen duten hiru lagun bidaia zoroa kontatzen du dokumental honek, eta Deban bizi den Joseba Etxeberria elgoibartarra da hiru "marinel" horietako bat.



Mausitxako gazta 50 onenen artean 'Great Taste 2016' elikagai txapelketan.

Artzai Gazta elkarteko Mausitxa gaztak Erresuma Batuan The Guild of Fine Food elkarteak antolatutako Great Taste 2016 txapelketan hartu zuen parte. Saritutako produktuak jasotako izarren arabera sailkatzen dira: izar batekin (gozogoza), bi izarrekin (aparta) eta hiru izarrekin (paregabea). Mausitxako gaztak hiru izar jaso zituen. Gainera, aurkeztu ziren 10.000 produktuetatik 50 onenen artean sailkatu zen. Sari nagusia Hannan Meats saiheski erreak irabazi zuen.



San Bartolome 30,
Tel.: 680 724 060

Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA

KONTSERBAK
ETA ARDOA

Gabon zorientsuak!





'Elgoibarko Elkar-Bizi' sentsibilizazio jardunaldiak egin zituzten Elgoibarren urriaren 13tik 28ra bitartean. Hainbat hitzaldi, tailer eta ekimen antolatutako zituzten nagusi zein umeentzat, nork bere berezitasunak izan arren, oinarrian denok berdinak garela erakusteko. Izan ere, migratzaileen inguruko uste okerrak isildu eta gogoeta sustatzea zen egitasmoaren helburu nagusia.



Bi udal langilek jasandako eraso salatatu zuten Elgoibarko Udalak. Elgoibarko Udalak jakinarazi zuenez, bi udal langileri eraso egin zien bizilagun batek, udaletxean lanean ari zirela. Elgoibarko Udalak "guztizko babesa eta laguntasuna" agertu zien biktimei eta eraso hori salatzeke elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean.



Uxue Alberdik jaso zuen Euskadi Literatura saria, haur eta gazte literatura atalean. Uxue Alberdi Estibari-tzek (Elgoibar, 1984) Euskadi Literatura saria jaso zuen Besarkada lanagatik, euskarazko haur eta gazte literatura sailean. Kopla bidez idatzitako lana da, eta hori ere nabarmendu zuen epaimahaiak. Epaimahaikideek ondorengoak nabarmendu zituzten, Uxue Alberdiren lana saritzeko: "Besarkada lanak azal eta mami biltzen du besarkada batek sortarazten duen zirrara. Kopla bidez agertzen du hori guztia Uxue Alberdik, kontraste-giroa sortuz".



Sute batek kalte handia eragin zuen Urazandi kaleko etxebizitza batean.

Urazandi kaleko 30. zenbakiko etxebizitza batean sutea piztu zen urriaren 13an eta suak kalte material handiak eragin zituen. Lau laguneko familia bat bizi zen etxean, tartean oso adin txikiko bi ume, baina zorionez, inor ez zen zauritu, nahiz eta anbulategira eraman behar izan zuten gutxienez haietako bat.





Iban Muruak irabazi zuen 2016ko lasterketa bertikalen Euskal Herriko Kopa. Iban Muruak erakustaldia eman du 2016ko Kilometro Bertikalen Kopan. Kopa osatzen duten bost probetatik hiru irabazi ditu Lizarpe taldeko antxitikari elgoibartarrak: Zegamako, Azpeitiko eta Araia-Aratzeko. Emakumeei dagokionez, Abadiñoako Oihana Azkorbebeitiak irabazi du Kopa eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra sailkatu da bigarren postuan.




Jose Gurrutxaga atleta elgoibartarra hil zen urriaren 23an, 95 urte zituela. Atleta eredugarria izan zen Jose Gurrutxaga. Elgoibar Ikastolak ere halaxe zela uste zuen eta hargatik antolatzen dute urtero bere omenez Jose Gurrutxaga krosa. Korrikalari beteranoak txapelketa askotan hartu zuen parte Euskal Herrian, Espainian eta Europan zehar, eta makina bat errekor ondu eta hainbat domina lortu zituen bere korrikalari ibilbidean. 2007an, esaterako, Espainiako txapelduna izan zen beteranoen kategorian 100 eta 200 metrotan. Adinean aurrera egin arren, egunero antxintxika egitera joateko ohiturari eutsi zion azken urteetara arte.

Errosario kaleko jairik ez. Errosario kaleko jai-batzordeak amaitutzat eman zuen bere jarduna, eta horrenbestez aurten ez zen jairik izan, ez behintzat azkeneko urteotan ezagutu dugun formatuan. Hildako bizilagunen aldeko meza, salbea eta Haritz dantza taldeak Errosarioko Amaren omenez egin ohi duen ez-pata-dantza bakarrik egin zituzten.



Guillermo Hijanok ohorezko aipamena lortu zuen Iberoamerikako Kimika Olinpiadetan. Iberoamerikako Kimika Olinpiadak jokatu zituzten Bogotan (Kolonbia) hamazazpi herrialdeetako ia 70 ikaslek, eta horien artean Guillermo Hijano elgoibartarrak ohorezko aipamena eskuratu zuen. Euskal Zientzia Olinpiadetan eta Espainiako Fisika eta Kimika Olinpiadetan lau domina eskuratu ostean lortu zuen Guillermo Hijanok Iberoamerikako Kimika Olinpiadetan parte hartzeko sailkapena. Parte hartzaileen artean gazteena izan zen elgoibartarra. 16 urte dauzka, eta 19 urte gainerako parte hartzaileek.



TANTAKA

Aita agirre, 5
Tel: 943 030 736

- 🔴 Pintxoak
- 🔴 Entsaladak
- 🔴 Ogitartekoak
- 🔴 Plater konbinatuak
- 🔴 Razioak

Ondo pasa eguberrietan!

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€



Atabal elkarteko zuzendaritza berria hasi da lanean. Trinitateetako nagusien danborrada antolatzen duen Atabal elkarteak zuzendaritza talde berria aurkeztu zuen azaroan. 2005etik lanean aritu den zuzendaritza ordezkatu du Encarni Migalesek gidatuko duen taldeak. Migalesek orain arte eginiko lana eskertu zien aurreko zuzendaritzakoei eta adierazi zuen haiek egindako lanari segida emateko asmoa dutela.

'Amorante' saritu zuten Musika Bulegoa sarietan.

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak musikari, sortzaile eta interpreteak saritu zituen, eta sarituen artean Iban Urizar elgoibartarraren Amorante bakarkako proiektua dago. Horrekin batera Juanjo Mena zuzendariaren ardurapean dagoen Berliner Philharmonikerren Zuzendaritzak, Rural Zombies taldearen (*Bat*) azken lanak eta Angel Unzu (*Duos*) saritu dituzte. Bilboko Kafe Antzokian egin zuten sari banaketa ekitaldia azaroaren 24an.



Etxegarai eta Frutos nagusi Euskal Herriko Lokotx-Biltze txapelketan. Euskal Herriko Lokotx Biltze txapelketa jokatu zuten azaroaren 12an Elgoibarren, Ikastolako frontoian. Gizonezkoetan, Berako Fernando Etxegarai irabazi zuen proba eta txapelketa honetan lortzen duen hamargarren txapela eraman zuen etxera. Emakumezkoetan, Arabako ordezkari Zuriñe Frutos (Artziniega, 1986) gailendu zen. Etxegarai sei minutu eta zortzi segundotan batu zituen 50 lokotxak, eta Frutosek zazpi minutu eta hamazazpi segundotan amaitu zituen lanak.

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@fonocom.es

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208

Tel. eta Faxa: 943 744 451

E-mail: nava@euskalnet.net

20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



Gabon zoriontsuak!

Egoitz Morak bosgarren amaitu zuen Munduko Judo Txapelketan.

Beteranoentzako Munduko Judo Txapelketan parte hartu zuen Egoitz Mora elgoibartarrak Miamin (AEB), azaroaren 19an. Sentsazio "gazi-gozoa" laga dion bosgarren postua eskuratu zuen. Gozoa txapelketa ona egin zuela uste zuelako, eta gazia, brontzezko domina eskura izan zuelako. Hiru borrokaldi irabazi eta bi galdu zituen Morak, eta Kaliffa Oliveira judoka estatubatuararen aurka galdu zuen borrokaldian brontzezko domina izan zuen jokoa.



Jabier Osorok irabazi zuen Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketa. San Migel taldeko Jabier Osoro elgoibartarrak irabazi zuen Euskadiko 27. Hiru Txirlo txapelketa, lau jardunalditan hamazortzi txirlo jota. Bikotekako lehia ere elgoibartarrak izan dira onenak.



Jesus Bilbao elgoibartarrak jaso zuen Korta sarietako bat.

Eusko Jaurlaritzak Joxe Mari Korta 2016 sariak banatu zituen azaroak 22an Lehendakartzan. Aurten makina-erremintaren, etxeko altzarren, ekitaldi-zerbitzuen eta mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko gizon-emakumeak saritu dituzte eta saritutakoen artean dago Jesus Bilbao Aizpiri elgoibartarra. Erreminta makinaren munduan egin duen ibilbidea hartu dute kontuan, saria emateko orduan.

Iban Muruak eta Maite Maiorak errekorrak ondu zituzten Karakateko igoeran.

Errekorren edizioa izan da aurtengo Karakateko Igoera. Iban Murua elgoibartarrak proban lortzen zuen lehen garai-penaz gainera, 45 segundoan ondu zuen Larizen errekorra, 26 minutu eta 52 segundoan osatu baitzuen igoera. Emakumezkoetan mendi maratoiko txapeldun Maite Maiorak erakustaldia eman zuen eta igoera aparta egin zuen, 31 minutu eta 37 segundoan. Nahia Quincocesek zeukan errekorra, ia hiru minutuan ondu zuen.



Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 31
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak
eta 2017 urte emankorra!*

Enpresetarako Software-an espezializatuak



ERP, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMA,
Fakturatzea, Kontabilitatea,
Lanpartek jasotzeko Programa,
Neurrira egindako Programak, Hardware,
Segurtasun informatikoa.

www.softlan.biz - www.softlan.eus



Maite Maiora korrikalari mendarorak 100 kilometroko mendi lasterketa irabazi zuen Murtzian. Helmugan ordubete baino gehiagoko aldea atera zion bigarren emakumezkoari. Sailkapen orokorrean bosgarren egin zuen, 12 ordu eta 23 minutuko denborarekin.



Indarkeria matxista salatzeke ekintzak egin ziren Elgoibarren eta Mendaron: Aza-roaren 25ean hainbat ekintza egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron, indarkeria matxista salatzeke. Ikusgarriena, beharbada, Mendaron egin zuten woman in Black ekimena izan zen. Tratu onen aldeko Mendaroko taldeak antolatu zuen, 2016. urtean estatuak bikotekideek hil zituzten emakume guztiak ikustarazteko.



"A los pies del caballo" liburua argitaratu zuen Justo Arriolak. Ia bi urteko dokumentazio lana behar izan zuen. Euskal Herrian heroina zabalteko interes politikoa egon zela defendatzen du liburuan. Euskal Herriko eta Elgoibarko garai hartako egoera jaso du liburuan, tartean testigantza errealak eta bere bizipenak ere batu ditu.



Euskara plaza publikora atera zuten ehunka lagunek. Euskarak 365 Egun taldeak antolatuta, Jalgi Hadi Plazara jaialdia egin zuten Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eta herriko kaleak euskaltzalez bete ziren. Elgoibarko 53 elkartek eta 500 lagun baino gehiagok parte hartu zuten giza katean.

Anjel Bazterretxea abadeari eskerrak eman zizkieten Mendaron. Jendetza handia batu zen Mendaron Anjel Bazterretxea abadeari egindako esker on ekitaldian. 54 urtean egindako lana eskertu zioten.



San Bartolome parrokiak 300 urte bete zituen. 1716ko abenduaren 30ean eskaini zuten lehenengo meza San Bartolome parrokian, eta ekintza haren 300. urteurrena ospatu dute aurten. Urte osoan zehar egin dituzte ospakizun ekitaldiak, eta besteak beste, hitzaldiak, kontzertuak erakusketak, eta bisita gidatuak egin dira. Horrez gain, parrokiaren historia biltzen duen liburua ere argitaratu dute Pello Arrietak eta Javier Elorzak.

ETXEPE

Lan
berezikiak
Grandes
mecanizadas

Mekanizatu handietarako adituak



Tel.: 943 741 297 / 943 740 664

Faxa: 943 744 321

www.etxepe.com

etxepe@etxepe.com

SEGUR-arno

ASEGURUAK

PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

Gabon
zoriontsuak!

Deba kalea 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

PAKEA
MATTASUNA
POZA
EGUNERO
BARRE EGITEA
PASIOZ BIZI
AMETSETAN
SINISTU
UNEAN UNEKOA BIZI
URTE BERRI ON!

Ikusirik gisa
Jurdes
Pedro Miguel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

Gabon
zoriontsuak
eta
urte berri
on!

EEA

*Hamaseia bukatzen
hamazazpi hara,
denon elkartasunaz
gailenduko gara;
Lipdubean bezala,
poza ta zirrara,
Zorionak Elgoibar,
ta biba euskara.*

Zorionak eta urte berri on!

Saridun guztiak ordezkari politikoekin.



Julen Galindo (Egokran judo kluba)



Ikastolako eta Herri Eskolako guraso taldeak (Morkaiko, mendizaletasuna)



Egoitz Ansola (Sanlo, eskubaloia)



Jose Mari Arakistain (CD Elgoibar, futbola)



Mikel Zubiaurre (Saskibaloia taldea)



Gorka Sastre (Igeriketa taldea)



Felix Conde (Lagunak, pilota)



Patxi Agea (Zubi Ondo, xakea)



Ane Barbarrubio (Urbizi, urpekaritza)

Ricardo Garate, 8 urtez kirol patronatuko presidente izandakoa omendu zuten. Alargunak eta semeak jaso zuten oroigarria.



Jose Ignacio Beristain (Sigmako probaleku elkarte, herri kirolak)



Nerea Sasiain (Mintxeta, atletismoa)



Carlos Galarraga (Lagun Taldea, txirrindularitza)



Alfredo Etxeberria (Areto futbola)



Agustin Esnaola (La Union, ehiza)



Imanol Urain (40-15, tenisa)



Ander Nogales (Olaizaga, karatea).



Rafael Segui (Zarta, arku tiraketa)



Aitor Arrieta (Urnobitza, motoak)



317
api

GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA

Gabon zoriontsuak!

www.inmobiliariagabilondo.es SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR - Tel: 943 74 44 67



ELGOIBAR

SAN FRANCISCO KALEA

Garantziak

ERAIKUNTZA BERRIA

AUSARTONDO, S.L

Avda. Julio Urkijo, 28 behea.

20720 Azkoitia (Gipuzkoa)

Tel: 943 85 30 03 - Faxe: 943 85 30 04

www.ausartondo.com

Publizitate hau orientatzeko bakarrik da eta informatzeko bakarrik egina dago.




215.000 €
(+B.E.Z.) hasita

- Azalera eredu 1
- 92,80m2 erabilgarriak
- 3 logela
- Egongela/Jangela
- Sukaldea
- 2 Bainugela
- 2 Balkoi

**AZKEN
ETXEBIZITZAK!**

943 744 467



135.000 €
+ B.E.Z.

- 4.solairua (Apartamendua)
- 42,80m2 erabilgarriak
- 1 logela
- Sukaldea/Jangela
- 1 Bainugela

Trastelekua sotoko solairuan

Obrako horma-armairuak, ate eta barruko antolamendu eta guzti.

Sukaldeak behe eta goi armairuekin hornituak, Balay etxeko etxetresna elektriko eta Silestone etxeko gainak.

Galdeketarako galderak adostuta, sinadurak biltzeari ekin dio Elgoibarko Gure Esku Dago batzordeak



Esana zuten erabakitze eskubidea gauzatzeko jaiotako zirela eta 2017ko udaberrian herri galdeketa egingo zutela, erabakitze ariketen bidez, herritarrak ahalduntzeko. Baldintza bi ere jarri zituzten ofizialki galdeketa antolatu ahal izateko: batetik, galdera(k) adostea, eta bestetik, galdeketa egiteko berme modura, Elgoibarren erroldatutako 16 urtez gorako 1.500 herritarren sinadurak biltzea gutxienez. Eta lehenengoa bete du Elgoibarko Gure Esku Dago batzordeak.

Larunbatean egin zuen jendeurreko ekitaldian aurkeztu zituzten galderak, bi: *Nahi al duzu gaur egungo estatus politikoa aldatzea?* Eta bigarrena: *Nahi al duzu euskal estatu independentea?* Lehenengo galderari "ez" erantzunez gero, ez dago bigarrenari erantzun beharrik, suposatzen delako gaurko egoeran gustura dagoenak ez duela ezer aldatu beharrik ikusten. Adin eta kolore askotako jendeak osatutako 30 bat laguneko taldea ibili da galdera adosten.

Lehenengo erronka gaitzuta, bigarrenari heldu diote: otsailera bitartean, ahalik eta sinadura gehien batzea (prozesua bukatzean denak desegingo dira). Larunbateko ekitaldian 250 bat sinadura bildu zituzten eta datozen egunotan kalera irtingo dira, gehiagoren bila. Abenduaren 24an, esate baterako, Kalegoen plazan egongo dira 12:30etik aurrera, eta abenduaren 31n, Salento ondoan jarriko duten talo postuan ere ipiniko dute mahaia, sinadurak batzeko (10:30etik aurrera).

Bihar etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi opariak banatzera

Olentzero eta Mari Domingi bihar etorriko dira Elgoibarrera eta Mendarora opariak banatzera. Elgoibarrera goizez etorriko dira. Elgoibarko Izarrak antolatuta, 11:00etan hasiko da kalejira Kalegoen plazan, eta herri osoa kantuan zeharkatu ostean, San Bartolome parrokiako arkupean jasoko dituzte umeen gutunak. Horrez gain, Atxutxiamaikako hezitzaileek diana egingo dute dultzainero eta trikitalariekin, 9:00etatik 11:00ak arte. Kantuan eta eskean ibiliko dira kalez kale.

Mendaron, bestalde, arratsaldean egingo dute kalejira. 16:30ean irtengo dira Moxuanetik, ondoren Garagartza-



tik Mendarozabalera joango dira eta segidan, Azpilgoetara. Udaletxeko balakoiara irtengo dira Olentzero eta Mari Domingi herritarrek agurtzera, eta udalaxe azpian jasoko dituzte umeen gutunak. Egun horretan baserritarrez jantzita irteteko eskatu dute antolatzaileek.

Niala magoa, hilaren 26an Kultur Etxeko sotoan

Atxutxiamaikak eta Ludotekak Elgoibarko Udalarekin elkarlanean hainbat ekintza antolatu dituzte Eguberrietako oporraldirako. Niala magoak magia ikuskizuna eskainiko du astelehenean, eta eguaztenen, berriz, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa izango da. Kultur Etxeko sotoan izango dira bi emanaldiak, 17:30etik aurrera. Ekitaldi horien aurretik, umeentzako tailerrak eskainiko dituzte bi egunetan.



DANOBATGROUPEk Euskararen Egunaren harira antolatutako lehiaketak baditu irabazleak



Euskara eta lan mundua lotzeko lehiaketa irekia antolatu zuen DANOBATGROUPEk Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eta dagoeneko banatu dituzte sariak. Amets Aranbarrik eta Hoda Abdelouahabek irabazi dute lehiaketa, eta smart-watch bana eskuratu dute. DANOBATGROUP kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietara zabaldu dute lehiaketa aurten, eta herri horietako herritar orok izan dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Enpresa taldeak herritarrengana hurbildu eta euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera eman nahian, web bidez egin dute aurtengo lehiaketa. *Euskara aldean, erabili lanean lempian burutu dute lehiaketa.*

Zuhaitz Gurrutzagak emango ditu urte amaierako kanpaikadak ETB1en

Aurten Zumaiaetik zuzenean eskainiko dituzte urte amaierako kanpaikadak ETB1en, eta Zuhaitz Gurrutzaga izango da ikuskizuneko aurkezleetakoa, Mikel Pagadirekin batera. Horrez gain, Herri Txiki kantuan programa ere grabatu dute, eta Gabon gauean eskainiko du ETBk, euskarazko katean.



Ekialdeko Errege Magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira Elgoibar eta Mendarora

Ekialdeko Errege Magoak urtarrilaren 5ean etorriko dira Elgoibarrera eta Mendarora opariak banatzera. Elgoibarko desfilea Parrokiako Katekesiak antolatzen du. 17:30etik aurrera jaiotza biziduna izango da parrokiako atarian, eta Errege Magoak 18:00ak aldera iritsiko dira Jesus haurtxoa gurtzera. Santa Klara aldetik etorriko dira, eta herri osoa zeharkatuko dute, herritarrei gozokiak banatzen. San Lazaro egoitzan ere sartuko dira, bertako egoiliarrei opariak banatzera. Gero, udaletxeko arkupeetan egongo dira umeen gutunak jasotzen. Mendaron, bestalde, Arno guraso elkarrekin antolatzen du Errege Magoen desfilea. Azpilgoetan hasiko da, eta herria



zeharkatu ostean, Ikastolan jasoko dituzte umeen eskutitzak, ondoren opariak banatzeko.

Uxue Alberdik idatzi du Korrikaren abestiaren letra

Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) idatzi ditu 2017ko Korrikako abestiaren hitzak, eta Xabier Zabalak jarri die doinua. Zirkorrika jarri diote izena, eta joan zen astean aurkeztu zuen AEK-k. Martxoaren 30ean Otxandion hasi eta apirilaren 9an Iruñean bukatuko da Korrika. Abeslari eta musikari ezagunek hartu dute parte abestian: Izaro abeslari mallabiar gazteak, Petti beratarrak, Miren Narbaiza Napoka Iria eta beste hainbat proiektutako kantari eibartarrak, Jurgi Ekiza Willis Drummond-eko abeslariak eta Oihana Fernandez Afu Iruñeko musika-taldeko abeslariak. Jarauta 69 txarangako kideek jarri diote musika, Oreka TXeko kideekin elkarlanean. Doinu balkanikoak gogora dakartzan abestia osatu dute, bizia eta alaia.

Asier Garaialde eta Eneko Urain saritu dituzte Euskararen Eguneko esaldi lehiaketan

Elgoibarren Asier Garaialde, eta Mendaron Eneko Urain saritu dituzte Euskararen Eguneko esaldi lehiaketan. Elgoibarko Izarrak eta Udal Gaztelekuak antolatu zuten lehiaketa, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzako. Aurten Arreiturre Institutuko ikasle Asier Garaialdek aurkeztutako esaldiak irabazi du: *Ez izan beldur, izan hiztun* leloarekin. Esaldi horrekin kamiseta bat sortu dute antolatzaileek, eta 13-18 urte bitarteko nerabeen artean banatu dute.

Mendaron, aldiz, Gaztelekuak antolatu du lehiaketa. Eneko Urainen *Euskara gure ahotan atzo, gaur eta beti* esaldiak irabazi du. Mendaroko egutegian argitaratuko dute esaldia.



Asier Garaialde



Ezkerrean, Eneko Urain

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia urtarrilaren 2an izango da

Tipi Tapa, Korrika! ikuskizunaren bi saio eskainiko dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimototsek urtarrilaren 2an Elgoibarren: 16:30ean eta 18:30ean. Lehengo Korrika, Euskararen alde Euskal Herria osoa bisitatzen duen martxa, 1980. urtean ospatu zen, eta 2017. urtekoa 20. edizioa izango da. Urteurren hori dela eta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizun berri bat prestatu dute, eta euskara, alaitasuna eta baloreak izango dira protagonista nagusi. Hala, ikuskizunean ikusiko denari erreparaturaz, Korrika herri batera helduko da, eta bertan amaituko da ibilbidea gainera. Pailazoen publikoa ibilbidearen bukatzerako ospakizunetan parte hartzera gonbidatuko dute. Kolorez, abenturaz eta sorpresaz betetako jai izango da *Tipi-tapa, tipi-tapa Korrika!*

Elgoibarko Izarraren Eguberrietako bertso saioa abenduaren 28an izango da

Aurten ere punta puntako bertso jaialdia antolatu du Elgoibarko Izarrak Udalarekin lankidetzan, Eguberrietarako. Abenduaren 28an izango da emanaldia Herriko Antzokian (22:00), eta sarreren aurre-salmenta gaur amaituko da. Sarrerarik geratzen bada, saioaren egunean bertan jarriko dituzte salgai Herriko Antzokiko leihatilan. Sarreraren prezioa 11 euro izango da; 10 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek. Aurten ondorengo bertsolariek hartuko dute parte: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Amets Arzalluz eta Unai Iturriaga. Gai-jartzaile lanetan Uxue Alberdi arituko da.



Eguberrietako argiak urtarrilaren 6ra arte egongo dira piztuta

Abenduaren 12an piztu zituzten Eguberrietako argiak Elgoibarko kaleetan, eta Errege Egunera arte egongo dira piztuta, 17:30etik 23:00etara.

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, bi urtetik behin aldatzen dituzte herriko kale eta txokoak apaintzeko jartzen dituzten argien diseinuak, eta hortaz, iazko berdinak jartzea tokatu da aurten. Argizatutako guneak ere aurreko urteetakoak izango dira: Maala, Santa Ana, anbulatorioa, Udaletxea, eliza, Kultur Etxea, San Lazaro egoitza, azoka plaza, Giza Eskubideen parkea, Santa Klara komentua eta herriko biribilguneak. 17.550 euroko (BEZ kanpo) kostua izango dute argiek.



Alex Martinen 3D argazkien erakusketa ikusgai Kultur Etxean hilaren 31ra arte

Alex Martinen Argazkiak 3Dn erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean abenduaren 31ra arte. Esperientzia handiko argazkilaria da Alex Martin, eta orain dela hogeita hamar urte hasi zen 3D formatuan argazkiak ateratzen. Duela zortzi urte egin zuen hiru dimentsiotako argazkien estreinako erakusketa, Mendaroko bere etxean. Eibarren jarri zituen gero ikusgai, eta Zumaiian eta Deban ere erakutsi ditu. Animaliak (apoak, txoriak...) eraikinak eta naturan ateratako beste hainbat argazki ikusi ahal izango dira Kultur Etxean, hiru dimentsiotako argazkiak behar bezala ikusteko betaurrekoak jantzita. Asteleheneretik larunbatara, 18:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta Gabon Zahar Egunean, 12:00etatik 14:00etara.



Mus txapelketa egingo dute bihar Otzak tabernan

Joan den urteko harrera ona ikusita, Elgoibarko Otzak tabernak Gabonetako II. Mus Txapelketa antolatu du hilaren 24rako. Txapelketa 16:00etan hasiko da, eta interesatuek 15:30era arte izango dute izena emateko aukera. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharoko izena ematerakoan. Txapelketa "zortzi erregetara" jokatu da eta onenentzako txapelak, garaikurrak eta produktu ezberdinak egongo dira.

MILAR

Gabon zoriontsuak!

BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

autocares
Revert



Gabon
zoriontsuak!

Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura
Avd. R. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa
Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386
autocaresrevert@gmail.com
www.autocaresrevert.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zubieto
Dentista

Desarrollamos servicios
Cuidado de la Odontología
Dentística Adulto, Niño, Ortopedia,
Periodoncia, Implantología,
Ortopedia Maxilofacial,
Radiología Odontológica,
Kardiología, Epileptología,
Neurología, Neurofisiología,
Neurocirugía, Epileptología,
Neuropsiquiatría, Psiquiatría,
Oncología, Otorrinolaringología,
Neurofisiología, Neurología,
Oncología, Otorrinolaringología,
Neurofisiología, Neurología.

Atención al cliente
8:00h - 22:00h
Especialistas
10:00h - 14:00h

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai lezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobekak. GALDETU

IRAZABAL
clínica dental

Julán Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Gabon
zoriontsuak!

PSOE



Bi orduz azpitik igo zuten Renault 4L autoa Lizarperaino



Mendaroko Tope Naxiok Giza Proba Taldeak eurek uste zutena baino azkarrago gainditu zuen bere buruari jarritako erronka. Gidaria barruan zela, baina motorrik piztu gabe igo zuten 800 kiloko Renault 4L auto zaharra Lizarpe gaineraino, hamar lagunek, tiraka. Ordubete, 51 minutu eta segundo bateko denbora behar izan zuten ia bost kilometroko ibilbidea osatzeko. Erronkak ikusmina piztu zuen, eta jendetza batu zen Lizarpen. Erronkaren bideoa ikusteko: barren.eus

95 umek hartu zuten parte Mendaroko Haur krosean

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 95 umek hartu zuten parte zapatuan Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatutako haur krosean. Bosgarren edizioa izan da aurtengoa, eta aurrekoetan egin legez, adinka banatuta korrika egin zuten neska-mutilek. Bukaeran domina eta goxoki poltsa bana jaso zuten parte hartzaile guztiek sarritzat. Irudiak ikusteko: barren.eus



Patinaje pista abenduaren 23an zabalduko dute

Elgoibarko Udalak patinatze pista jarriko du Lekueder parkean, hamargarren urtez. Abenduaren 23an zabalduko dute eta urtarrilaren 8ra arte egongo da zabalik. Egutero egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Abenduaren 24an eta 31n aldaketa egongo da arratsaldeko ordutegian: 16:00etatik 18:00etara irekiko dute pista. Hockey txapelketa ere jokatuko dute Eskola Kirolean diharduten umeek. Abenduaren 26an eta 27an izango da, 10:30ean.



Michael Oratovsky errusiarrak irabazi du Elgoibarko nazioarteko Xake Txapelketa



Michael Oratovsky xakelari errusiarrak gailendu da Elgoibarko 26. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketan, sei eguneko lehiaren ostean. Sei puntu eta erdi eskuratu ditu Oratovskyk. Bi xakelari serbiarrek osatu dute podiuma, Aleksa Strikovic-ek (6 puntu) eta Sirisa Drazic-ek (5,5 puntu). Gustavo Barrenetxea elgoibartarrak ere hartu du parte, laugarren urtez jarraian, eta 10. postuan sailkatu da. Eskola Kiroleko xake txapelketa ere jokatu zuten aurreko astean, eta Jon Martin eta Hodei Kerexeta gailendu ziren.

Nora Kortaberriak eskubaloiko euskal selekzioarekin jokatu du Nazioen Kopa



Eskubaloiko emakumezkoen euskal selekzioak Nazioen Kopa jokatu zuen eguaztenean eta eguenean, Granollersen. Martin Larrañaga hautatzaileak Nora Kortaberria elgoibartarra eta Elgoibarren bizi den Nerea Arregi zarauztarra sartu zituen deialdian. Kataluniako eta Galiziako selekzioen aurka jokatu zuen Eus-kadikoak.

San Silbestreko lasterketak Elgoibarren eta Mendaron

Antxitxika agurtu ahal izango dute urtea elgoibartarrek eta mendarotarrek. Mintxeta Atletismo taldeak Elgoibarko 8. San Silbestre lasterketa antolatu du (abenduaren 31n, 00:01ean). Egun berean, arratsaldez (17:00) egingo dute Mendaron, hirugarren urtez. Mendaroko Txirriindulari taldeak antlatuta. Bost kilometroko ibilbidea izango dute biek. Bi herrietako tabernetan eman daiteke izena, bi euroan. Egunean bertan ere eman ahal izango da izena.



Nesken futbol partidak Mintxetan

C.D. Elgoibarrek Futbol Eskolan dabilzan nesken zoko futbol txapelketa antolatu du abenduaren 27rako Mintxetan. Hiru taldek hartuko dute parte elgoibartarrez gainera. Partidak 10:00etan hasiko dira. Era berean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako jokalariz osatutako senior mailako emakumezkoen selekzioak Mintxetan egingo ditu entrenamenduak egun berean, baina arratsaldez, 16:30ean.

Emaitzak

FUTBOLA

Zarauz 0 – Haundi 3 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 6 – Zestoa 1 (1. erreg.)
 Aretxabaleta 2 – Elgoibar 1 (Oho. jub.)
 Burumendi 0 – Elgoibar 0 (Jub. 1. maila)
 Elgoibar 1 – Zarautz 2 (Oho. kad.)
 Aizkorri 0 – Elgoibar 2 (Inf. 1. maila)
 Elgoibar 1 – Anaitasuna 1 (Infantil Txiki)
 Aloña Mendi 2 – Elgoibar 5 (Alebinak)
 Urki 1 – Elgoibar 5 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Debarrena Concepto Egile 1 – Juventud del Circulo 1 (Nazional B)

SASKIBALOA

Goierri Kuker 82 – Viento Sur Elgoibar 85 (Nazional B)

ESKUBALOA

Ereintza 25 – Alcorta Forging Group 21 (Senior giz.)
 Lauko Elg. 20 – Basauri 24 (Senior emak.)
 Saieko 33 – Salento 26 (Senior giz.)
 Tecnifuelle 27 – Errotabarri 18 (Jub. nes.)
 Ereintza 24 – Beristain 29 (Jub. mut.)
 Deca 29 – Leizaran 28 (Jub. mt.)
 Astigarraga 28 – Errotabarri 24 Kad. nes.)
 Ereintza 27 – Urkunde 25 (Kad. mut.)
 Cometel 28 – Bar Alaiki 6 (Kad. nes.)
 Bankoa 23 – Pulpo 26 (Kad. mut.)
 Modeltek 19 – Ordizia 8 (Inf. nes.)
 Aiala 14 – Pneumax Elg. 24 (Inf. nes.)
 Bacalaos Alkorta 21 – Eibar A 20 (Inf. nes.)
 Arrasate 5 – Murgil 40 (Inf. mut.)
 Txarriduna 7 – Pulpo 32 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Martitzena, 27

10:00 Futbol Eskolako nesken partidak

Mendian federatzeko izenematea

Mendaroko Lizarpe mendi taldeak jakinarazi duenez, zabalik dago mendian federatzeko epea. Aurreko urteetan bezalaxe adinaren eta estalduraren arabera ordaindu beharreko kopurua desberdina izango da.

Mendian federatu nahi dutenek www.lizarpe.com helbidean eskuratu dezakete federatzeko beharrezkoa den informazio guztia.

LANA.....**Eskaerak**

Informatika eskolak ematen ditut.

☎ 680 944 294

Nagusiak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta formakuntza ditut.

☎ 671 989 434

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 631 724 749

Nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 692 314 985

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago, interna moduan ere bai.

☎ 602 193 095 / 612 216 458

Nagusiak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut etxe eta portaletan. Plantxa lanak ere bai.

☎ 631 098 995

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest nago. Gauze zein orduka. ☎ 631 506 763

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 631 790 555

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua. ☎ 667 625 233

DBH eta Batxilergoko hizkuntza ikasgaietarako klase partikularrak ematen dira: euskara, gaztelera, inglesa eta latina. ☎ 692 277 044

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 612 216 458

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 602 193 095

Garbiketa lanak egiteko prest: elkarateak, portalak, etxebizitzak,...

☎ 603 237 932

Eskaintzak

Umeak zaintzeko pertsona behar dugu, orduka aritzeko, goizez eta arratsaldez.

☎ 690 362 464

Zerbitzaria behar da. Curriculumua Sua tabernan utzi.

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Pisua alokatzen da, altzariekin. Bi logela, egongela, handia, terraza, ganbara, eguzkitsua eta igogailuarekin.

☎ 669 598 769

Pisu edo ganbara bat hartuko nuke alokairuan. Bi logelakoa gutxienez.

☎ 631 098 995

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela

oso handia.

☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

GARAJEAK.....

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin.

☎ 609 951 243

BESTELAKOAK.....

Hiru hilabeko katakumeak oparitzen ditut.

☎ 646 723 911

Karakate mikologia elkarteko nire bazkide eta partea traspasatuko nuke.

☎ 688 605 253

Goiko Errota elkarteak bazkide berriak behar ditu.

☎ 626 797 027 (Julen)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean portaleko mantenimenduari dagozkion gastuak denon artean eta kopuru berean ordaintzen ditugu, baina, aldiz, garajeko plazei dagozkien gastuak eta komunitateko aseguru partaide-kuotaren arabera ordaintzen ditugu. Jakin nahiko nuke komunitate bereko gastuak ordaintzeko bi sistema egon daitezkeen.

Zuzenena Legeak ezartzen duen moduan egitea da; hau da, Estatutuetan zehaztutakoaren arabera. Estatutuetan ez bada ezer zehazten, baina, gastuak partaide edo koefiziente-kuotaren arabera banatu beharko dira. Beraz, ez litzateke zuzena gastu batzuk denek kopuru berean ordaintzea eta beste batzuk koefiziente-kuotaren arabera ordaintzea. Berez, partaide-kuotaren arabera ordaindu beharko lirateke gastuak, beti ere Estatutuetan beste modu batera egitea zehaztu ez bada, eta jakina, aldaketa hori Jabetza Erregistroan jaso ez bada.

Legeak dio gastu orokorrei etxe-jabe guztiek erantzun behar dietela, partaide-kuotaren arabera. Ezarri daiteke gastuak ordaintzeko beste sistema bat, jakina, baina sistema horrek balioa izan dezan, aldaketa horrek etxe jabeen oniritzia izan behar du eta dagokion leku guztietan jaso beharko da aldaketa hori egin dela.

AHOLKUA: Urteetan etxe-jabe guztiak gastuak kopuru berean ordaintzen egon diren arren, sistema hori aldatzea badago, etxejabeek legeak ezartzen duen gehiengoz onartzen badute.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Aimar**, hilaren 27an 9 urte egingo dituzulako. Muxu asko etxekoan partez.



Zorionak, **Oier**, 5 urte bete zenuelako abenduaren 21ean. Muxuak familia osoaren partez, txapeldun!



Zorionak, **Nora**, gure printzesa! 2 urte egin dituzu! Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Eleneren partez.



Zorionak, **Ane**, asteazkenean 6 urte handi egin zenuelako. Patxo handi bat ahizpa Naia eta lehen-gusu Ibai eta Lie-rren partez.



Zorionak, **gure etxeko bi sorgintxoak**, atzo 6 urte bete zituztelako. Muxu handi bana familia osoaren partez.



Zorionak, **Oinatx eta Markel**, bihar 11 urte beteko dituzuelako. Goiuriren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Amaia**. Muxu asko, familiakoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Fotodepilazioa egiten dugu

GABON ZORIONTSUAK!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864



Tel. 943 53 17 45
jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com



Jai zoriontsuak eta urte berri on!



San Ignazio, 1
ELGOIBAR

50

urteurrena



50 urte zuekin bidaiatzen.
Jai zoriontsuak!!

Pol. Ind. Igartualdea, 27
20850 Mendara - Tel. 943 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



23 BARIXAKUA

20:00 Elkarretaratzea. Kalera kalera ekimenak antolatuta, Kalegoen plazan.

24 ZAPATUA

9:00 Diana, Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazatik hasita.

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

11:00 Tonbolaren irekiera. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

12:30 Gure Esku Dago-ren sinadura bilketa. Kalegoen plazan.

15:30 Preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa.

16:30 Olentzeroren kalejira, Mendaron.

18:45 Udal Musika Bandaren kalejira. San Lazaro egoitza ere bisitatuko dute.

19:00 Kalejira, Maalatik Kalegoen plazara. Sarek antolatuta.

26 ASTELEHENA

10:30 Izotz hockey txapelketa. Lekuederreko izotz pistan. Eskola Kirola elkarteak antolatuta.

16:00 Umeentzako tailerrak. Kultur Etxe aurrean.

17:30 Niala magoa, Kultur Etxeko sotoan.

27 MARTITZENA

10:30 Izotz hockey txapelketa. Lekuederreko izotz pistan. Eskola Kirola elkarteak antolatuta.

28 EGUAZTENA

16:00 Umeentzako tailerrak. Kultur Etxe aurrean.

17:30 Pello Añorga ipuin kontalaria, Kultur Etxeko sotoan.

22:00 Idi demak. Sigmako probalekuan.

22:00 Bertso jaialdia, Herriko Antzokian. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

29 EGUENA

20:00 Kontzertua. Musbika Ensemble. San Bartolome parrokiari.

30 BARIXAKUA

19:00 Meza berezia, parrokiari. Lehengo meza ospatu zenetik, 300. urterena ospatzeko.

31 ZAPATUA

00:01 San Silvestre lasterketa. Kalegoen plazan hasita.

9:00 Gabon Zahar feria.

10:30 Gure Esku Dago-ren sinadura bilketa kanpaina, Salento ondoan.

17:00 San Silvestre lasterketa Mendaron, plazan hasita.

18:00 Gabon Zahar eguneko dantza saioa. Musika Eskolak antolatuta.

2 ASTELEHENA

16:30 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Herriko Antzokian.

3 MARTITZENA

17:30 Kontzertua, San Lazaro egoitza. Musika Eskolak antolatuta.

5 EGUENA

17:30 Jaiotza Biziduna.

18:00 Errege Magoen desfilea.

6 BARIXAKUA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

1. *Club Cocherito* (F. Saez)

2. *Rapsodia vasca* (V. Beobide)

3. *A Christmas festival* (L. Anderson)

4. *Jai-alai 'Maite'* (P. Sorozabal)

5. *Cordillera de los Andes* (Malando-Vlack)

6. *Adeste fideles* (J. Mellan)



Flexiahorro
% 0,55

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AJURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau oparituko dizugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 15,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR,
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

CA **bankoa**
CREDIT AGRICOLE

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G Guardiak 09:00 - 22:00

U	23 Barixakua GARITAONANDIA	1 Domeka IBAÑEZ
A	24 Zapatua YUDEGO	2 Astelehena BARRENETXEA
R	25 Domeka YUDEGO	3 Martitzena IBAÑEZ
D	26 Astelehena IBAÑEZ	4 Eguaztena GARITAONANDIA
I	27 Martitzena GARITAONANDIA	5 Eguena ETXEBERRIA
A	28 Eguaztena ETXEBERRIA	
K	29 Eguena FERNANDEZ	
	30 Barixakua YUDEGO	
	31 Zapatua IBAÑEZ	
	31 Goizez, BARRENETXEA	

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201
110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko antzokian)


'La llegada'

23 barixakua 21:30
25 domeka 19:00
30 barixakua 21:30



'La vaca'

1 domeka 19:00
2 astelehena 21:30



Nieves Odriozola Unchalo

2016ko abenduaren 16an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Ignacio Gabilondo Mugerza

"Txiro!"

2016ko abenduaren 16an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Sebastiana Curieses Caballero

2016ko abenduaren 17an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iñigo Lamelas



Ikusten gintuen jende askok pentatuko zuen zertan ari ote ginen bi gazte, gauzez, argazki kamara eta tripodearekin plazan. Agian, askok galdetuko duzue azaleko argazkia nola aterata dagoen, edo ordena-

gailuz eginiko muntaia den. Ba hona hemen erantzuna: Argazkia ez nuen nik bakarrik egin. Kontuan izanda kamera plaza erdian jarrita nuela, eta gainerako guztia eliza aurrean eginda dagoela, ezinbestekoa da beste pertsona baten laguntza. Asierrek lagundu zidan. Bera beti laguntzeko prest! Idatzi hau aprobetxatu nahi dut nire eskerrik beroenak emateko. Eskerrik asko, Asier.

Azaleko argazkia bi zatitan egin dago: alde batetik, 300 zenbakia duen argazkia, eta bestetik, txispak dituen.

300 zenbakia duen argazkia light painting teknikarekin egin dago. Horretarako ondorengoak izan nituen kontuan:

- Argazki kamera tripode gainean jarri, toki egonkorrean.
- Denbora luzeko argazkia atera, eta irudikatu nahi dena argiz marraztu behar da. Gure kasuan 13 segundutako argazkia da, eta tartean litera batekin marraztu dugu 300 zenbakia.


Bigarren argazkia... Nola egin txispak? Txispak ateratzeko altzairuzko hariaren teknika erabili dugu:

- Argazki kamera tripode gainean jarri eta 35 segundutako argazkia atera genuen, urruneko agintea erabiliz; horrela geuk kontrolatzen genuelako argazkiaren hasiera eta bukaera.

- Txispak egiteko altzairuzko haria eskuratu genuen. Margo dendetan edo burdindegietan lortzeko aukera dago. Katai luze bat lortu eta muturrean jarri genion altzairuzko haria. Ondoren pizgailu batekin sua eman genion. Altzairuzko haria piztuta, kateari bueltak eman genizkion, txispak sortuz.

Esan beharra dago segurtasun neurriak kontuan izatea oso garrantzitsua dela.

Bi argazkiak atera ondoren, lightroom programarekin bi argazkiei konponketatxo batzuk egin genizkion. Bi argazkiak gure gustura egokitu ondoren, Photoshop programarekin egin genuen lan. Argazkiak bata bestearen gainean jarri genituen, txispadun argazkia erretratu nagusia izanez, eta beste argazkia poliki-poliki gardentzen joan ginen, gaurko alearen azalean agertzen den argazkia lortu arte.



“Azaleko argazkia ez nuen nik bakarrik egin. Eskerrik asko, Asier”

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK



Ermu arandibide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industriagunea, 17 beheha
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimara@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermu arandibide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999




electricidad
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Bergain 17, AC beheha
Tel.: 943 202 208
Faxa: 943 205 045
20600 EIBAR

Heriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARA



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Heriko Enparantza, 10 beheha
MENDARA
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrota.iturgintza.com
www.pagoerrota.iturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, beheha B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 beheha - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabiade@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
landa@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
fabien@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552

606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IGELTSERITZA



Urasandi, 22 beheha - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 beheha
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

Urte berri on!

Erabakia, Konponbidea eta Bakea, Justizia Soziala.



elgoibar@ehbildu.eus
<https://www.facebook.com/ehbilduelgoibar>

ehbildu